

Herririk Herri |4|

Trena Mallabitik pasatu dadin eskatu dio udalak Eusko Trenbide Sareari



Berbaz |8|

Lorea Muñoz: "Hirigintza Plana osatzeko aurre-erreferenduma egingo dugu"

Amalurra |18|

Amiantoaren kalteak berbagai hartu dituzte Elorrion, Elorrixak antolatuta



Atzo arratsaldean pentsio erreformaren kontra protesta egiteko Durangon deitutako manifestazioan ehunka lagun batu zen. Kepa Aginako



•Abadiño

Erregegiak atonduko ditu udalak Muntzaratz eta Traña-Matienan

4

•Elorrio

Lau auzotako saneamendua zelan bideratu aztertuko du udalak

4

•Atxondo

ADIFek martitzenean sinatu gura ditu AHTaren desjabetzak

7

•Iurreta

Amilburun kaleargi berriak ipintzeko asmoa du udalak

6

Grebak "erantzun zabala" izan du Durangaldean

> Gehiengo sindikalaren datuen arabera, jarraipena "ia erabatekoa" izan da

> Deitzaileek zehaztu dutenez, metal arloko enpresetan eragin du gehien

2

Justiziarako kultura eraikitzen

Tel.: 94 681 00 50
www.durangojesuitak.org
sanjose@durangojesuitak.org
Kurutziaga, 1 - DURANGO

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Durangaldean greba orokorrak izan duen erantzuna ontzat eman du gehiengo sindikalak

Sindikatu deitzaileek adierazi dutenez, erantzunzabala izan du grebak, metal arloan batez ere



Piketeak enpresa eta komertzioetara joan ziren atzo. K. Aginako

ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak gus-tura daude Durangaldean atzo deitutako greba orokorrak izandako erantzunagaz. Sindikatu deitzaileek jakitera eman dutenez, Durangaldeko herrietan grebaren jarraipena "ia erabatekoa" izan da. Herrietako komertzio, taberna eta batez ere banketxe-tara pikete informatiboak joan zirela atzo goizean jakitera eman dute sindikatuek. "Lehen orduan ireki duten banketxeek ere pike-teak pasatu ahala itxi egin dituz-te atek", gaineratu dute prentsa oharrean.

Eguerdi alderako enpresa gehienak itxita zeudela azaldu du gehiengo sindikalak. Durangaldean enpresa askok "zabalduraz ez zuten egin": Hierros Riezu, Agria, Elexalde, Idesa, Envasa, Ugarteburu Meypu, Lince, Alco, Mafisa, Alga, Amilibia, Camelot eta papelera Smurfit Nervion (gutxie-

Inyectametal enpresan hiru lagun identifikatu zituen Ertzaintzak eta Eroskiko zentrolean beste bat

neko zerbitzuekin), esaterako. Piketeak pasatu ahala, ixten joan ziren edo gutxieneko zerbitzuekin gelditu ziren beste enpresa batzuk ere aipatu dituzte: Betsaide, Indefunsa, Fuchosa eta Inyektametal. Azken enpresa horretan arazoak sortu ziren atzo, Ertzaintzak pikete informatiboetako hiru gazte indentifikatu zituen.

Irakaskuntza arloan ere jarraipena "handia" izan dela azaldu dute: Kurutzaga ikastola, Durangoko Jesuitak ikastetxea eta Txintxirri ikastolan greba egin zutela atzo diote sindikatuetak arduradunek. Udal zerbitzuetan ere grebak antzeko jarraipena izan duela azaldu dute.

Komertzio handietan, 200 pertsona inguru joan ziren Eroski eta Sabecora eta itxi egin zituzten, sindikatuek diotenez. Elorrioko Eroskiren zentrolean pike-tei atek itxi egin zizkietela salatu dute. "Ertzainen laguntza eduki dute bertara joandako langileen kontra oldartzeko. Barruan zeuden langileekin berba egitea ukatu eta pertsona bat identifikatu zuten". ■ J.G.

Mobilizazioak antolatu dituzte Durangaldean

Pentsio erreformaren kontrako greba orokorrerako deialdia zelata, mobilizazioak antolatu zituzten atzo arratsaldean Durangaldean. Durangon arratsaldeko 17:30ean batutako ehunka manifestarik herriko kaleak zeharkatu zituzten pentsio erreformaren kontra. Ordu berean, Elorrion, beste manifestazio jendetsu batek aldarri bera egin zuen. Aurreko asteetan ere, sindikatuek hainbat protesta ekitaldi antolatu dituzte

Durangon eta Elorrion antolatutako manifestazioetan ehunka lagun bildu ziren

Erreformaren atzean pentsio publikoen amaiera eta pribatuen bultzada dagoela diote sindikatuek

Durangaldean. Urtarrilaren 11n, esaterako, Durangoko Gizarte Segurantzaren aurrean elkarretaratzea antolatu zuten. Urtarrilaren 14an, berriz, manifestazioa deitu zuten.

Sindikatu deitzaileek azaldu dutenez, "erreformaren atzean pentsio publikoen amaiera eta pribatuak bultzatu nahia dago". Banketxeekin erreforma egitea adostuta dagoela diote, eta antzerkia egiten ari direla CCOO eta UGT gobernuagaz akordiora heldu daitezen. Gainera, gogoratu dutenez, "Hego Euskal Herrian pentsiodunen erdia pobrezia mugatik behera bizi da gaur egun".

Heziketa jardunaldiak Durangon eta Elorrion

Habixe eta La Serrada elkarteek Nazioarteko Haziera eta Heziketa Jardunaldiak antolatu dituzte

Durangon, eguaztenean hasi eta martxoaren 2ra arte, eguaztenero izango da hitzordua Pinondo etxean, 18:00etan. Otsailaren 2an Arantxa Irastorzak *Harremanetako psikomotrizitatea, emozioei aurre egiteko tresna* jarduna eskainiko du, eta hurrengo astean Maitte Sánchezek *Biolentziaren jatorria eta prebentzioa* hartuko du ber-

bagai. Otsailaren 23an Hendrik Vaneekhaute aitaren rolaz mintzatuko da, eta martxoaren 2an, azkenik, *Continuuma errespetatzen duten heziketa sistemak: eskola eta bizitza porrotetik aldentzeko gako* izeneko saioa gidatuko du David Plak.

Elorrioko Iturri kultur etxean gaitegi berbera jorratuko dute, baina egunak aldatuz. Zapatuetan izango dira jardunaldiak, 11:00etan. Bihar Yolanda Gonzalez txanda izango da, otsailaren 5ean Irastorzarena, 12an Sanchezena, 19an Vaneekhautearena eta 26an David Plarena. ■ J.D.

Otsailaren 2an, Durangon psikomotrizitatea izango du aztergai Arantxa Irastorzak

DURANGON

- Otsailak 2**
- Harremanetako psikomotrizitatea
- Otsailak 9**
- Biolentziaren jatorria eta prebentzioa
- Otsailak 23**
- Aitaren Rola
- Martxoak 2**
- Continuuma errespetatzen duten heziketa sistemak

ELORRION

- Urtarrilak 29**
- Izaeraren etsipenak osasunean duen eragina
- Otsailak 5**
- Harremanetako psikomotrizitatea
- Otsailak 12**
- Biolentziaren jatorria eta prebentzioa
- Otsailak 19**
- Aitaren Rola
- Otsailak 26**
- Heziketa sistemak

BERRIZ

Aukera Azoka zapatuan, merkatarien eskutik

Lehenengoz ospatuko da ekimena neguan; deneriko produktuak ipiniko dituzte aukeran

Berrizko Merkatarien Elkarteak Aukera Azoka eratu du zapatu honetarako. Guztira, dozena bat postu egokituko dituzte Olakuetako frontoian. Goizeko 10:00etatik iluntzeko 20:00etara zabalduko dute merkatu berezi hau. Bertan, arropak, loreak, burdindegiko

objektuak, boutiqueko produktuak, estankokoak eta optikakoak ere izango dira. Kasu honetan, Keñu optika frontoitik gertu dagoenez, dendan bertan eskainiko dituzte beherapenak.

Lehenengo bider egingo dute azoka neguan; udan birritan antolatu izan dute dagoeneko. Uda-ko esperientziagaz gustura daude, eta orain denboraldi honetan egin gura dute proba merkatariek. Herriko merkataritza bultzatzea eta herrian jai-giroa sortzea dute helburu. ■ M.O.

Goizeko 10:00etatik iluntzeko 20:00etara zabalduko dute azoka



DURANGO

Etorkinentzako gaztelera- zko mintzapraktikak antolatu dituzte

Durango Udaleko Inmigratio Sailak gaztelaniaz berba egiteko ahalmena hobetu gura duten etorkinei mintzapraktikak eskaintzeko ikastaroa antolatu du. Helburua giro natural eta lasaian berriketan aritzeko aukera eskaintzea da, eta horretarako boluntarioak behar dituzte; etorkinekin gazteleraz berba egiteko. Boluntario moduan parte hartzeko ez da eze-lako titulurik behar.

Gaztelania hobetu gura duten etorkinak eta lagunduko dieten boluntarioak astean behin batuko dira

Etorkinen profilari dagokionez, berba apur bat egiteko gai direnei, baina oraindik jarria hobetzeko premia dutenei zuzenduta dago mintzapraktika.

Gutxieneko konpromisoa hamar ordukoa izango da, eta astean behin batuko dira, ordu-betez. Udaleko Inmigratio Sailean eman daiteke izena ekime- nean parte hartzeko. ■ J.D.

Aralar alderdiko gazte erakundea den Iratzarrik Durango etxebizitza sozia- len premia dagoela adierazi du asteon. Durango "baditu gehi- go eraikitze ahalmena eta bali- bideak, baina asmoak debate antzuetan geratzen dira, aurrera egin barik", azaldu du Mikel Ande- rez Iratzarriko kideak: "EAJ eta PSE-EEri gazteen ilusioekin ez jolasteko eskatzen diegu".

EAJren eta PSE-EEren aurre- kontuetarako akordioa lotu ondoren, agindutako 250 etxe- bizitzetatik "50 alokairu soziale- koak izango zirela esanez poztu ziren; gure ustez, kopuru hori ez da nahikoa". Era berean, gogo- ratu dutenez, "2010eko lehen hiruhilekoan, Etxebiden 3.220 lagunek etxebizitza eskabidea eginda zuten Durangon".

Kanpaina berria

Durango Aralarren egoitzan emandako prentsurrekoan, *Etorkizuneko ezker abertzalea eraikitzen ari gara* kanpainaren berri ere eman zuten. Gazte aber- tzale ezkeriarren mezuak gizar- teratzea dute helburu, "gazteok gizarte gaitan iritzi propioa dugula erakusteko". Kanpainak hainbat ardatz ditu: bakea, etor- kinak eta emakumea, erabakitze- ko eskubidea, sexu eta genero askapena, ikasleen borroka eta ekologismoa. ■ J.D.

Etxebizitza sozialen premia dagoela adierazi du Iratzarrik



Mikel Anderez, Leire Martinez eta Iker Urkiza mahaian.

Etxezuriosten bitza bateko etxeak egitea onartu dute

Kurutzia Ikastolatik Tabirako biribilgunera dagoen lur zati zabala (35.000 metro karratu inguru) urbanizatu eta etxebizit- zak egiteko proiektuan aldaketa bat onartu zuen udalbatzarrak eguaztenean. Hain zuzen ere, lanak egiteko ardura duen EDP Norte S.L. enpresak familia biko etxeak beharrean familia baka- rrekoak egiteko aldaketa propo- satu zuen, eta udalbatzarrak onartu egin zuen EAJ eta PPren aldeko botoekin; PSE-EE abste- nitu egin zen, eta Talde Mistoa eta Aralar kontra agertu ziren.

Proposamenak ez du alega- ziorik jaso argitaratuta egon den epean. Talde Mistoa kontra boz- katu zuen "proiektu elitista" dela argudiatuz. Aralarren ustez, berriz, "dentsitate baxuko oku- pazioa izango du eta, gainera, ez da jasangarria". ■ J.D.

Proposamenak ez du alegaziorik jaso argitaratuta egon den epean

Pilar Rios izango da berriro sozialisten alkategai

Orain lau urte legez, Pilar Rios izango da udal hauteskundeetan PSE-EEko hautagaia Durango alkatetzarako. Zientzia Politikoan eta Zuzenbidean lizentziatua da

"Ilusioz, gertutasunez eta dedikazioz" aurre egingo dio etapa berriari

EHUn. Gauregun, Durango zine- gotzia izateaz gainera, Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaldua ere bada. Hautagai sozialistak adiera- zi duenez, "ilusioz, gertutasunez eta dedikazioz" aurre egingo dio etapa berriari: "Herritarren beha- rizanei erantzuten dieten ideiak ekarriko ditugu, beti ere, ikuspe- gi errealista eta posibilitista bate- tik; demagogiarik gabe". ■ J.D.



OTXANDIO

Gaztetxearen hamargarren urteurrena prestatzen

Aurtengo ekainean Otxandioko Gaztetxeak hamarkada egingo du, eta dagoeneko Gazte Asanblada hasita dago urteurrena pre- statzen. Alde batetik ospakizuna herrira zabaltzeko gura dute, eta horregatik herriko gazteriaz hartu-emanetan hasi dira euren ekarpenak jasotzeko.

Bestalde, ekaineko urteurren egunerako ekimen bereziak pre- tatu gura badituzte ere, horren aurretik ere beste ekintza batzuk egongo direla jakinarazi dute. Esaterako, *Eraixon* leloagaz arropak salgai ipini dituzte Gazte- txean: kirol jertseak, kamisetak eta barruko arropa, esaterako. ■ J.D.

IURRETAKO HEZKUNTZA EREMUA

Olaburu auzunea IURRETA



2-12

MAIZTEGI
HH eta LH



12-18

OROBIOGOITIA
DBH eta Batxilergoa

Matrikula Epea:

urtarrilaren 31tik

otsailaren 11ra

- Gune egokia
- Jantokia eta garraioa
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak Iurretan



94 681 09 37 MAIZTEGI

94 681 04 61 OROBIOGOITIA

ELORRIO

Teknologia berriek gazteengan duten eragina aztergai Guraso Eskolan

Aurten hirugarren biderrez, udal-letxeko Hezkuntza Sailak Gurasoen Eskola antolatuko du. Orain urte bi herrian inkesta bat egin zuten gurasoek seme-alaben gainean zituzten kezka jakiteko. Batutako iritzietako batzuek teknologia berriek seme-alabengan zuten eragina aipatzen zuten. Beraz, aurten gai hori izango da Guraso Eskolako ardatza. Otsailaren 2, 9, 16 eta 23an izango dira klaseak Iturri kultur etxean: hiru hitzaldi eta klase praktiko bat; azken hori KZGunean.

Gaur da izena emateko azken eguna; 10 laguneko taldea eratu behar da, gutxienez

Urtarrilaren 28ra artekoa da (14:00 arte) izena emateko epea udal-letxean. Gutxienez, 10 laguneko taldea batu behar da ikastaroa sortzeko. Izen-ematea 5 euro da eta gura duenari haurtzaindegi zerbitzua eskainiko diote. ■ J.D.

Lau auzotako saneamendua zelan bideratu aztertuko dute

Bizkaiko Uren Patzuergoak egingo du proiektua, eta ondoren udalak bideragarritasuna aztertuko du

Auzoetako arazo berri zehatzago jakin eta euren irtenbide egokiagoa emateko iaz sortu zuten Auzo Kontseilua hasi da fruituak ematen. Orain-tsu, Lekeriketa, Leiz, Berrio eta Aldape auzoek saneamendua hobetzeko beharra plazaratu zuten, eta Udala hasi da dagoeneko lanean: "Arazoa da lotune nagusitik auzo horietara hodia-ria sartzea ezinezkoa dela, eremu haietako orografiak ez duelako

ahalbidetzen", azaldu du Niko Moreno alkateak. Horregatik, beste alternatiba bat pentsatu eta gauzatu dute. Lehenengo eta behin, auzo horiek udalari helarazitako plano eta informazioa Bizkaiko Uren Partzuergora bideratu dute, eta haien ardura izango da egoera aztertu eta proiektua osatzea. Ondoren, Udalak proiektuaren bideragarritasuna aztertuko du.

Segurutzik, "irtenbiderik egokiena auzo horietako bakoitzean hobi septiko bana egitea izango da eta, ondoren, hobi horietatik auzoko baserri eta etxeetarako azpiegiturak bideratzea". Udalak 13.000 euro ipini ditu zeregin horretarako. ■ J.D.

Lekeriketa, Leiz, Berrio eta Aldape dira sanamendu eskaera egin duten auzoak



Lekeriketa da proiektuan sartzen den auzoetako bat.

Urkizuarango azpiegiturak berriztatzen hasiko dira

Urkizuaran kalean-Tanger tabernatik Lince enpresaraino doan eremuan- saneamendu eta urak bideratzeko lanak gauzatu ditu udalak. Dagoeneko adostu eta onartu dute lanen nondik norakoak definituko dituen baldintza orria, eta datozen 15 egunetan Bizkaiko boletin ofizialean argitaratu dute. Ondoren, ahal bezain laster, lanak esleitu dituzte eta asmoa hiru hilaren barruan, maiatza inguruan, lanak amaitzea da.

Tanger tabernatik Lince enpresara bitartean dauden azpiegiturak berriztatuko dira

Lanak ahalik eta arinen hasi eta maiatzerako amaituta egongo direla itxaroten dute

Urkizuaran kaleko eremu hartako hodieriak "arazoak eman ditu aspalditik, eta horregatik azpiegiturak berriztatzea erabaki dugu, arazoa behin betiko konpontzeko helburuagaz", adierazi du Niko Moreno alkateak.

Azkenik, lan horiek gauzatu behar dituztela aprobetxatuz, azpiegiturak berriztatu ondoren zonalde hartan asfalto berria botako dute; "errepidearen egoera ere hobetu guran", alkatearen esanetan. ■ J.D.

ABADIÑO

Erretegiak atonduko ditu udalak Muntzaratzen eta Traña-Matienan

Egitasmo biok aurrera eramateko, Jaurlaritzaren 96.000 euroko diru-laguntza jaso du udalak

Errekaren ibilguaren aldamenean atonduko duten parke batean eraikiko dute merenderoetako bat Muntzaratz auzoan, eta Traña-Matienako Eroski hipermerkatuaren ondoan iaz inauguratu zuten aintzira artifizialaren ondoan ipiniko dute bestea.

Lursail biak parke publiko bilakatzeko, arbolak landatu eta iturriak ipiniko dituzte; parrilla bikoitza izango duten erretegi bi eta sei mahai Muntzaratzen, eta

beste erretegi bat Matienako aintzira ondoan.

Energia sorkuntzarako Traña-Matienan, Eroski hipermerkatuaren ondoan iazko udan inauguratu zuten aintzira artifizialaren behar energetikoak sortzeko ezarri duten eguzki eta hai-ze bidezko sistema, bestetik, gutxi barru egongo da prest. Espainiako gobernuaren diru-laguntzagaz burutu dituzte lanak. ■ I.E.



Aintzira ondoko lursailean ipiniko dute erretegiak bat.

Muntzaratzen 11 autotan lapurtu duelakoan, gizon bat atxilotu dute

Astelehenetik martitzenerako gauean, Ertzaintzak 25 urteko gizon bat atxilotu zuen Muntzaratz auzoan 11 autotan egindako lapurrekin lotura duelakoan.

Muntzaratzko hainbat bizilagun martitzen goizean autora lapurretan egitera sartu zitzaizkiela konturatu ziren; ondoren, lapurtutako erreperatu dute. Autora lapurretan sartu zitzaizkion auzokide batek azaldu duenez, "sartu diren auto guztiek 10 urte-tik gora dauzkate". Berari ostutakoa baino autoari egindakoa larriagoa dela gaineratu du abadiñar horrek. Bere autoa Muntzaratzko dorre ondoko parkinean zeukan, baina etxebizitza inguruetan ere lapurtu ei dute, "portaleko bost bizilagunen autoetan ere ostu dute". Auzokideak arduratuta daudela diote azken aldi gertatutakoekin: "Beste auzo batzuetan ere ibili dira lapurrak". ■ J.G.

Ertzaintzak 25 urteko gizon bat atxilotu zuen astelehen gauean

Autoen jabeek lapurtutako guztia erreperatu dutela jakitera eman dute

Kritikak udal gobernuari, San Blas azokaren kudeaketatik

Talde Independienteko udal gobernuak otsailaren 3ko San Blas eguneko nekazal azokaren antolakuntza zelan burutu duen kritikatzeko agertu ziren komunikabideen aurrera joanzen bari-kuan EAJko eta ENBA nekazarien elkarte ordezkariek: Garate eta Sendino zinegotziak eta ENBA sindikatuko Egoitz Maguregik, "abeltzainen parte-hartzea, orain arte legez libre barik, izena emanda izan dadin baldintza jarri izana" kritikatu zuten.

EAJko Garate eta Sendino zinegotziaren eta ENBAko ordezkarieren agerraldia

Orain arteko edizioetan sekula ez bezala euren ganadua saltzeko "izena eman behar izateagaz udalaksalmenta %90 mugatuko du", salatu zuten agerraldian. Maguregiren berbetan, "umekeria" da gobernuaren erabakia, eta urtero legez Bizkaia-tik kanpoko abeltzainekin, azokan parte hartzeko asmotan izena eman behar den jakin barik etorriko diren arazo sortuko dela salatu du.

Neurri berri horregaz, salmenta kopuruei begiratuta, "Euskal Herriko abeltzain azoka inportanteena" den Abadiño-ko San Blas azoka "oztopatzea" egotzi diote udala. ■ I.E.



RENAULT CLIO

1.2 75cv EXPRESSION

2010ean matrikulatua.

80.000 km. arteko edo 2013ko
otsailera arteko bermea

9.800€ -tik aurrera.

www.gaurautoak.com

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

* Izakinak amaitu arte balio duen eskaintza. Ikustarazitako eta eskainitako modeloak desberdinak izan daitezke.



GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO. BIZKERRE S/N. TEL. 94 430 68 81. GETXO.

DIURRETA

Biribilgunea martxorako amaitzea itxaroten dute

Lanen epeak zehaztea aurreikuspen "gaitza" dela diote Foru Aldundiko arduradunek

Azaroan hasi ziren lurrak mugitzen N-634 errepidean. Trafiko pilaketa arazoak konpontzeko biribilgunea egiteko lau hile eta erdiko epea izango dute, eta, beraz, martxoan inguruan amaituta behar luke biribilgunea.

Hasteko, biribilguneako irteerak egiten hasi dira, eta biribilgunea bera azkenerako utziko dute.

Iñaki Totorikaguenak azaldu du hasierako behar honek emango duela denbora gehien, eta "biribilgunea bera egiten" ez dutela "denbora asko egingo". Foru Aldundiko arduradunek pausuak zer datatan egingo diren ez dute argitu. Azaldu dute "gaitza" dela "trafikoagaz bateratu behar diren obren epeak zehaztea". ■ A.U.



Azaroan hasi zituzten biribilguneako beharrak.

DI GARAI

Diru-laguntza eskatu dute kaleargiak aldatzeko

Garaiko Udalak herriko hainbat farola aldatu ahal izateko diru-laguntza eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari, Tokiko Agenda 21 programaren baitan. Herrigunean eta Momoitioko San Juanen izango du eragina egitasmoak.

Udalak zehaztutako proiektuak 67.343 euroko aurrekontua dauka, eta "Aldunditik kopuru horren ahalik eta portzentaia han-

diena jasotzea" itxaroten dute. Udalbatzarrean onartu dute diru-laguntza eskaera egitea.

Herrigunean hiru farola berrik beste hainbeste ordezkatu dituzte, eta gainerakoei bonbilak aldatuko dizkiete. Momoitioko argiztapen osoa aldatuko dute: kableak, posteak eta argiak. Kontsumo baxuko LED argien aldeko apustua egin du udalak. ■ M.O.



Txin-txaunetako zorua ere aldatu behar dute, denboragaz zatitu egin delako

Amilburun kaleargi berriak ipintzeko asmoa du udalak

Herrian argiteriaren efizentzia neurtzeko azterketa egin gura du 2011n

Herriaren geratzen diren kaleargirik zaharrenetakoa dira Amilburu plaza-koak. Sodio lurrinezko bonbilak dituzte, eta hamar daude. Farola horiek Led izeneko argiteriagaz ordeztzeko asmoa dauka udalak, energia aurreztu eta gutxiago kutsatzeko. Farola zaharrek 150 watio dituzte; Led motakoek 30.

Argiteria aldatzeko proiektua eginda dago, eta 2011ko aurrekontuetan aurreikusi dute. Farola berriak ipintzeko 18.000 euro beharko dira.

Iñaki Totorikaguena alkatea azaldu du argiteriaren eta energiaren gaineko azterketa edo auditoria bat egin dutela proiektua

prestatzen hasi aurretik. Azterketa horretan ondorioztatu dutenez, hamar bonbila berriek zaharrek baino 3 tona CO² gutxiago emitituko dute urtean, eta 770 euro aurreztuko ditu udalak energia eta mantenimentu gastuetan.

Led argiteria ipintzeaz gainera, udalaren asmoa herri osoko argiteria eta energia azterzea da, zenbat gastatzen den eta zenbat

Led argiteriagaz energia eta mantenu gastuetan 770 euro aurrezteko aurreikusi du lurretako Udalak

energia aurreztu daitekeen ebaluatzeko. Azterketa hori ere aurtengo aurrekontuetan sartzeko asmoa agertu du Totorikaguenak. Aurrekontuak otsaileko hirugarren edo laugarren astean plenera erango dituzte.

Parkeko lurra

Argiteriaz gainera, beste aldaketa batzuk ere egongo dira Amilburun. Txin-txaunetako lurra aldatzeko asmoa ere badu udalak: "Plakak banandu egin dira denboragaz, eta zatikakoa ez den kautxo ipini gura dugu". Aurtengo aurrekontuetan 20.000 euroko atala edukiko luke Amilburuko parkearen zoru berriak. ■ A.U.

• Haur hezkuntza • Lehen hezkuntza
LEARRETA-MARKINA eskola

Tel. / Faxe: 94 682 43 44

e-maila: 014097aa@hezkuntza.net

Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ

• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
IES BERRIZ BHI BERRIZ

Tel.: 94 682 49 62 Faxe: 94 682 77 26

e-maila: 015073aa@hezkuntza.net

Elizondo plaza 7.A 48240 BERRIZ

Erdu Gurekin!!

2 urtetik 16 urtera

Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz

Jantokia eta garraioa

Aurrematrikula:

Urtarrilaren 31tik

Otsailaren 11ra

Berrizko euskal eskola publikoa



Durangaldean labor

Izen-abizenak euskarazko grafian jartzeko aukera

Berrizko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiagaz eta Euskaltzaindiagaz batera, izen-abizenak euskarazko grafiaz jartzeko kanpainan parte hartuko du. Aldaketa-rako, udaletzeko erregistro zibil edo epaitegira joan behar da, eta bertan emango duten eskaera orria bete. Honako agiriak ere eroan behar dira: NANaren fotokopia, hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria, errolda ziurtagiria eta familia liburuaren fotokopia.

Merioaren Ibilbideak jaso ditu lehenengo bisitak

Gerendiaga elkarrekin bultzatuta, asteon hasi dira Durangaldeko ikasleak Merioaren Ibilbidean bisitak egiten. Guztira, 10-12 urte bitarteko 400 neska-mutikok Durangaldeko historian izan duen antolaketa sozio-politikoaren eza-gutuko dute. Aurrez irakurri duten Merioaren ipuineko pasarte asko gertutik biziko dituzte. Argazkian, Landako ikastetxeko ikasleak.



Pedro Luis Uriarteren berbaldia Azterlanen

Enpresen lehiakortasunean sakontzeko ekintzak aztertu zituzten eguaztenean Azterlanen. Pedro Luis Uriarterek, 1980tik 1984ra bitartean Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasunerako sailburua izan zenak, 'Euskadi, etorkizun ekonomikoari begira' berbaldia eskaini zuen.

ZALDIBAR

Herritarren parte-hartze foroa datorren astelehenean

Zaldibarko Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu Tokiko Agenda 21eko herritarren parte-hartze foroan ekarpena egitera. Datorren astelehenean, hilaren 31n, izango da batzarra arratsaldeko 19:00etan udaletxean.

Udaletik adierazi dutenez, foro honen helburua azken urteetan Zaldibarren aurrera atera diren ekintzen azalpena ematea da: "Hainbat ikuspuntu kontuan hartuta: gizartea, enpresak eta ingurumena, esate baterako". Diotenez, 2006an hasi eta gaur egun arte herrian egin dena aztertzea da antolatzaileen asmoa.

Udalak argitaratutako oharra dioenez, "denok osatzen dugu udalerrria, eta hobetu ahal izateko denon iritzia, proposamen eta ideiak behar ditugu udalean dihardugunok". Bizi-kalitatean aurrerapausuak emateko bizilagunen ekarpena "ezinbestekoa" dela azpimarratu dute. ■ M.O.

MALLABIA

Trena Mallabitik pasatzea eskatu dio Udalak ETSri, beste behin

Abenduan Mallabiko udal ardura-dunak eta teknikariak Eusko Trenbide Sareko (ETS) zuzendari Josu Benitogaz, Cesar Gimeno gerenteagaz eta Julian Ferraz bertako teknikoagaz batzartu ziren. Donostia-Bilbo bikoizketa egiterakoan Zaldibar-Ermuatartean trena Mallabitik pasatzea udalaren eskaera. Mallabiarrena inguruan lur azpiko geralekua eraikitzea da udalak bultzatzen duen proiektuaren asmoa, lur azaletik 20 metrora, tarte horretako ibilbidealuz apitziki joangolizatekeelako.

Aitor Loiola alkateak jakitera eman duenez, "ETS k mahaian dituen lau alternatibetatik hiru Mallabitik pasatzen dira, baina bi ez dira errealak". Alkateak garrantzitsua deritza Ermuko bariantea egiteari, baina baita proiektu horretan trenaren aukera kontuan hartzeari ere. "Oso proiektu garestia da, eta denbora askoan atzeratu daitekeena, baina Ermuko bariantea egiterakoan tren sarean egingo dituzten aldaketak direla eta hipotekatu egin dezakete biharko egunean Mallabitik beratu pasatzea". Donostia-Bilbo linearen bikoizketa egiterakoan ez bada aprobetxatzen trena pasatzea, Mallabian ez dute



Trena Mallabitik pasatu dadin gura du udalak.

la trenik inoiz ezagutuko deritza. "Eskariaren arabera erabakiko dute la diote ETSkoek, eta gaur egun dugun biztanle kopuruagaz, ez ETS-ri ez Jaurlaritzari, ez zaizkie inoiz kontuak aterako". Gaia aztertuko dute la azaldu dute ETSko arduradunek.

MAÑARIA

Kontserbak egiten ikasteko ikastaroa, EHNEren eskutik

Otsaileko eguaztenean (otsailaren 9an, 16an, 23an eta 30ean) eta martxoaren 2an eta 9an burutu dituzten saioretan parte hartzeko, 14 mañaritarrek eman dute jadanik izena. Eguazten horietan, arratsaldean batuko dira EHNE sindikatuak eskaintzen duen kontserba ikastaroan.

Urtarrilaren 31 arte eman daiteke ikastaroan izena; goizetan udaletxean eta arratsaldetan liburutegian, edo 94 681 89 98 telefonora deituta.

Otsaileko ikastaro horretan izen-ematea zelan joan den eta sendabalarrei buruz iaz eskaini zuten ikastaroak izan zuen arraskasta ikusita, ortugintzari buruzkoa antolatzekotan dira. ■ I.E.

Goizetan udaletxean edo arratsaldetan liburutegian eman daiteke izena

ATXONDO

Martitzenean AHTaren desjabetzak sinatzera deitu ditu ADIFek lurjabeak

"Formazko akatsekin" jarraitzen dutela eta aktak sinatzeko asmorik ez duela azaldu du alkateak

Atxondon jarraitu egiten du AHTko lanen gaineko "nahasmenak". David Cobos alkatearen berbetan, "lurjabeek ez dakite euren lurretan ibilbidea, hondakindegia edo kamioien aparkalekua egongo den". ADIFeko ordezkariak desjabetza aktak sinatzeko udalera joango dira datorren martitzenean. Desjabetzok behin-behinekoak izango lirake, zundaketak egiteko, herritik gertuen marraztu zuten ibilbideko lurretan. AHT Gelditu!

elkarlanak elkarretaratzea deitu du goizeko 09:15ean.

ADIFek esan du ibilbiderako barik obren bestelako azpiegiturarako izango direla zundaketak, baina Cobosek ez ditu gauzak garbi: "Planoetan ez diote hori, eta idatzietan, euskarazkoan eta erdarazkoan ez dute gauza bera esaten". Aktak ez dituela sinatuko aipatu du: "Formazko akatsekin jarraitzen dute, eta horrelako baldintzetan ez ditugu sinatuko". ■ A.U.

IZURTZA

Herri-galdeketa egingo dute herriko ordenamenduari buruz

Hile biren buruan herri-galdeketa burutzea da udal gobernuaren asmoa

Irailean abiatu zuten Herriko Antolamendurako Plan Orokorra berrikusteko zabalduetako parte-hartze prozesuaren hurrengo pausu moduan, herri-galdeketa burutuko dute datozen hileetan. Ordenamenduari buruzko hainbat gairi buruzko euren iritzia eman ahalko dute galdeketa horretan herritarrek, asteon udalean aurreratu digutenez: herria hazi behar ote den ala ez, zer irizpideren arabera egin, etab.

Irailetik hona herritarrekin egindako tailerretan, besteak

beste, hirigintza, ingurumena eta ekonomia gaiei dagokienez herritarrek ikusten dituzten gabeziak identifikatu dituzte.

Tailerretan herritarrengandik jasotako iritzia horiek oinarri hartuta, hainbat proposamen osatu ditu Antolamendu Plana berrikatziko duen lantaldeak.

Egoki ikusten duten herri erduari buruzko euren iritzia eman ahalko dute hilabete biren buruan egingo duten galdeketa izurtzarrak, aurkeztuko dizkieten aurreneko artean hautatuz. ■ I.E.

Irailetik hona buruturiko tailerretan jasotako iritzia hartu dituzte oinarri

Hainbat antolamendu eredu aurkeztuko dizkiete herritarrei galdeketa

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan saltsan.com

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

Arrike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

BERBAZ >

“Errepidea traba da herriari bizia emateko; izurtzarrok erdigune bat behar dugu”

Azkeneko urteotan Izurtzako herri mugimendua handitu egin dela-eta, pozik dago Izurtzako alkatea.



Lorea Muñoz •

- Izurtzako alkatea
- 50 urte ditu

“Hirigintza Planaren aurre-erreferenduma egingo dugu datorren otsailean”

izan du. Ez dugu gura benetako radarrak ipintzea eta jendea zigortzen hastea. Herri txikietatik pasatzera-koan jendea kontzientzia-tzea gura dugu; astiroago joatea. Radar kaxak ikusita, etortzen diren kotxe berriak astiroago joaten dira, eta hori ona da guretzat.

Zelako kultur mugimendua dago Izurtzan?

Azken urteotan handitu egin da. Nagusientzako gimnasia dago, emakumeek ere egiten dute, ikastaroak antolatzen ditugu, eskulanak... astero dago zer edo zer. Gazteek ere hiru euskal dantza talde osotu dituzte. Herrian bizimodua elkarrekin egiten hasi dira. Lehenago elizara joan, kafetxoa hartu eta halakoak bai, baina bestela denok joaten ginen Durangora.

Zelan bizi duzu alkate izatea?

Oso esperientzia handia da. Asko ikasi dut. Momentu gogorak ere izan ditugu, baina gauzak ondo iritzen direnean oso asebetegarria da. Herriarrek konfiantza dute gudan, eta ahal den heinean euren eskariei erantzuten ahalegintzen gara.

Ezker Abertzalea hauteskundeetan egon ahalko dela uste duzu?

Bai. Hauteskundeetara joango gara eta pentsatzen dut, baina ziurrenik azken momentura arte ez dugu jakingo. Gu, behintzat, aurrera jarraitzeko moduan gabilta lan egiten, eta ilusioz, gainera. ■ A.Ugalde

Izurtzarrak herriaren etorkizuna lantzen hasi dira oraintsu, Hirigintza Plana berregiten. Lorea Muñoz alkateagaz herrian ikusten dituzten premien inguruan egin dugu berba.

Amaitzean den legegintzaldi honetan zeintzuk izan dira zuen ardur nagusiak?

Gure asmoa beti izan da etxebizitzak egitea, gazteek ez dutelako aukerarik Izurtzan geratzeko. Azkeneko urteotan bizitza bakarreko etxe batzuk baino ez dira egin. Horrez gainera, herri-gune bat, zentro bat sortzea da gure helburua, eta horretarako herria erdi-erditik zeharkatzen duen errepidea kendu gurako genuke.

Orain hirigintza plan berria eratzeko zuzendutako zer puntutan dago prozesua?

Aditu talde bat daukagu plana diseinatzeko, baina herriarrek prozesuan parte hartzea gura izan dugu. Denon ekarpenak hartzeko batzar-ak egin ditugu, eta jende askok parte hartu du; berro-

gei pertsona inguruk. Inkestak ere egin ditugu; langileei, gazteei... telefonoz deituta. Herriarrek ekarpenekin adituek proposamen bat baino gehiago eratu dute, eta datorren hilean erreferendum aurrekoa egingo dugu, jendeak erabaki dezan zer proposamen gurago duen.

Epe laburrera etxebizitzak eraikitze asmoa daukazu?

15 etxebizitza egin gura ditugu frontoi atzean, aparkalekuen ondoan. Etxebizitza sozialak izatea gura dugu, baina oraindik ez dugu zehaztu zer motatakoak. Prozesu administratiboan gaude, eta urtebete barru eraikitzen hasteko moduan egotea itxaroten dugu.

2011ko aurrekontuetan alokairuetan laguntzeko diru-atala sortu duzue?

Laguntza hori eta ume jaio berrientzako laguntza ere ipini dugu. Ez da lehen Espainiako Gobernuak ematen zuen bestekoa; 600 euro dira. Izurtzako gazteei bertan bizitzen lagundu gura diegu; herrian geratzeko eta

“Ezker Abertzalea hauteskundeetan izango dela uste dut; gu jarraitzeko moduan gabilta lanean, ilusioz”

kanpora joan direnak bueltatzea gura dugu. Frontoi ondoan herrigunea egitea gura dugu, eta plazaren aurrean ere etxeak egitea eskatu digu jendeak.

“Radar faltsuek ez digute traba egiten; on egiten digute”

Herria gurutzatzen duen errepidea da oztopo nagusia.

Bai. Lau urteotan Foru Aldundiari biribilgunea eta saihebidia eskatzen ibili gara, planoak hainbat bider aldatzen... Gaur egungo errepidea oinezkoentzat seguruagoa edo autoak astiro pasatzeko egokitu gura genuke, horrela herrigune

politikoa geratzeko litzateke. Planoekin borrokan ibili gara, eta orain esan digute dirurik ez dagoela horretarako. Gure ustez, falta den bakarra borondate politikoa da. Guk gure proposamenagaz jarraituko dugu.

Radar faltsuak ipinizituzten duela urte bat.

Guk Foru Aldundiak ipini zituela pentsatu genuen, eurek guk ipini genituela... eta Aldunditik isun bat ipiniko zigutela esanez etorri zitzaizkigun, “zirkulaziorako arriskutsua” ei zelako. Radarrak ipini zituztenean kotxeak 50 km/h ibili ziren, eta normalean 80ra edo gehiagora ibiltzen dira.

Radar faltsu horien kaxek bertan jarraitzen dute.

Guretzako ez da traba; jendea astiroago joateko balio

Bautistako
beherapenak




B A U T I S T A
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BEHERAPEN ERRREALAK

Erregeei eskatu diegu gure erakustokiak BENETAN MERKATUTAKO
altzariz bete ditzaten.

% 70erainoko deskontuak, altzari-sorta aldatzeko.



urtarrilaren 7tik martxoaren 6a arteko edo izakinak amaitu arteko kanpaina

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

Urbite poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

www.bautistamuebles.com

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Ikasteko eskubidea, ukapen bat gehiago

Ikasteko eta garapenerako eskubide pertsonal eta intelektuala, pertsona baten oinarrizko elementu bat da.

Hala ere, azken urteetan zehar eta kanpaina zital mediati-koetan bermatuta, estatu espainoleko instantzia desberdinetatik euskal preso politikoei karrera baterako sarbidea – are gehiago euskaraz burutzea – era sistematiko batez galarazten saiatu dira.

Izan ere, dirudienez, ez da nahikoa Euskal Herritik milaka kilometrotara sakabanatuak izan ditzagun; ez da nahikoa kondizio jasanezinetan zuloan sartuta izatea, beraien isolamendua sakonaz; ez da nahikoa gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten euskal presoak ez askatzea; ez da nahikoa biziarteko espetxe zigorra aplikatzearekin; ez da nahikoa komunikazio guztiak murriztearekin eta ez da nahikoa ere, astebururo milaka familia eta lagun erruleta rusa anker batean sartzea eta errepideko kurba bakoitzean beraien bizitza arriskuan jartzea.

2003an, Estatu Espainoleko eta Frantseseko espetxeetan aurkitzen ziren 300 bat euskal preso politikoko EHUtik kanporatuak izan ziren, hasita zituzten ikasketak suspenditzera behartuak. Tronpatze hura makilatzeak, legea aldatzera behartuta ikusi zuten euren burua. Inpunitate osoz burutu zuten. Ordudanik, legea politikoen bultzadaz aldarazia izan da eta sistema hau, behin eta berriz errepikatu dute. Aldaketa hauek atxilotutako euskal gazteak unibertsitateetatik sistematikoki kaleratuak izatea ekarri dute; baita prebentziozko presoak izanda hasita zituzten ikasketak jarraitzeko aukera galaraztea ere.

Honi guztiari ikasketak burutu nahi dituen euskal preso politikoei jasan behar dituzten hamaika zailtasun tekniko gehitu behar zaizkio. Ikasmaterialetik hasita. Askotan ezinezkoa izaten da liburuak edo apunteak lortzea, izan ere, presondegiak presoenganaino materiala heltzeko baimena ukatzen die. Tuteretzekin beste horrenbeste gertatzen da.

Azterketa garaia iritsita, ez dira gutxi izango berauek egin gabe geratu diren preso politikokoak, adibidez, espetxez lekualdatzeagatik. Bi aste iraun ditzakeen bidean, preso politikoen ondusunak, lapurtuak edo galduak izaten dira. Gehienetan, desagertzen diren gauzak testuliburuak izaten dira.

Zein da pertsona bati ikasteko eskubidea ukatzeko helburua? Preso politikokoak pertsona bezala desagitea. Beraien bitarteko sozial eta afektibotik ahal duten guztia aldentzea. Etengabeko xantaiak burututako neurria, helburu politikokoak lortzeko.

Beste bat!

Eskubideen zapalkuntza salatu nahi dugu, eta presondegi politikaren amaiera eskatzen dutenekin bat egiten dugu.

Euskal preso eta iheslari politikokoak, beraien eskubideen jabe, etxera!

Durungaldeko errepresaliatuen senideak

Iker Morenoren Topaguneako lankideen gutuna komunikabideei eta euskal jendarteari

Lehenik eta behin, Guardia Zibilak atxilotu eta epaileak espetxeratutako Iker Morenori eta berarekin batera atxilotutako guztiei elkartasuna adierazi nahi diegu eta gobernu, epaile eta hedabideei espetxeratuen errugabetasun presuntzioa errespetatzeko eskatzen diegu.

Ikerren lan bikaina azpimarratu nahi dugu era berean, bai hezitzaile gisa bai Topaguneako koordinatzaile gisa, eta baita bere herriko kultur bizitzari begirakoa ere. Publikoa izan da bere jarduna eta gure konfiantza osoa dauka.

Hedabideetan irakurritako informazioaren arabera, Ike- rrek torturak salatu ditu eta bera ez da bakarria izan. Inkomunikazio egoerak atxilotutakoaren eskubideen urratzea ekarri ohi du, ez baita egoten beraien eskubideak errespetatzen diren bermerik. Torturak frogatu beharko direla esango duenik egongo da, baina horiek egon ez direla frogatzea legokioke administrazioari eta ezinbestekoak ditugun prebentzio neurrien bidez (konfiantzazko lekukoak, bideo grabaketak...) aukera hori saihestea. Ez da hori horrela izan, eta arbuigarritzat jotzen ditugu ondorioak.

Era berean, atxilotuta egunean Topaguneako Atarrabia-ko egoitzatik zein bere bazkide den Karrikaluze elkartetik zazpi ordenagailuen disko gogorak eta eskuko telefonoak eramane zizkigutela eta gure lana guztiz oztopatuta ikusi dugula adierazi nahi dugu. Euskararen alde lanean aritzeko lan tresnak besterik ez direla eta horiek lehenbailehen buelta diezazkigutela eskatzen dugu.

Topaguneako lan taldea eta Zuzendaritza Batzordearen izenean

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria PSE-EE

Kudeaketa ona eta politika

Enpresaburu bat hautatzeko, antolatuko al zenuke gladiadoreen arteko gatazka bat edo hautagaien arteko bakarrizketen lehiaketa bat?

Nik ez, behintzat. Zaplastakoak emateko gaitasuna izateak ez du bermatzen enpresa bat kudeatzeko lan konplexua betetzeko egokitasuna, eta, era berean, bakarrizketagilearen trebetasunak ez du lagun hori gaitzen kudeatzaile ona izateko.

Enpresaburu bat hautatzeko antolatuko al zenuke bakarrizketa lehiaketa bat? Nik ez, behintzat

Bere balio handia frogatzen duen kudeatzaile onena hautatuko nuke nik, eta alde batera utziko nuke horrelakorik frogatzen ez duena. Jakina, horretarako denek eduki beharko lukete euren balioa frogatzeko aukera. Nik hauxe balioetsiko nuke: enpresaren barneko funtzionamenduaren ezagutza; hurbiltasuna eta zintzotasuna, eta, horri loturik, enpresako sail guztietara hurreratzea zer esaten duten entzuteko, garrantzitsua baita jendeari entzutea, zertaz hitz egiten duten ulertzen saiatzea, eta iritzi edo ideia bat atzera bota aurretik haien lekuan jartzea; apaltasuna, oinak lurrean izan behar baititugu, eta jende ona ere bai inguruan, haiengandik ikasteko; eta umorea, lanbide guztietan bezala, baikorra izan behar baita kudeatzerakoan.

Ezagutzak, hurbiltasuna, zintzotasuna, apaltasuna, umorea...

Eta politikan? Ba, horixe bera.

Nik ezagutza, hurbiltasuna, zintzotasuna, apaltasuna eta umorea dituen kudeatzaile hautatuko nuke

Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten ize-
 nean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz
 zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa



anboto
 durungaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
 2011ko urtarrilaren 28a - 9. urtea - 401 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

DANTZA > LEHIAKETA



Luis Madina

DATUAK

- + Hirugarren edizioa
- + Hiru modalitate
 - Urban style
 - Jazz funk
 - Breakdance
- + Parte-hartzaileak
 - Bi eta sei lagun bitarteko dantzari taldeak
 - Bederatzi talde parte-hartzaile konfirmatuta
- + Koreografiak
 - Hiru minutu ingurukoak
- + Zazpi sari
 - 300 euroko saria, modalitate bakoitzeko onenari
 - 150 euroko saria, modalitate bakoitzeko bigarrenari
 - Apirilean Bilboko Casillako Break On Stage jaialdian parte hartzea.
- + Epaimahaia
 - Dantzariak eta antolakuntzako ordezkariak osatua

Kaleko kulturak eta dantzak beteko dute Arriolako eskenatokia bihar

Hirugarren edizioa du kale dantzen Elorrioko **Aka Dantz** lehiaketak. Asteon antolatzaileei galdetu diegunean, dagoeneko bederatzi bat taldek emana zuten izena. Urtarrilaren 29an, 18:00etan, Arriolan da "askotan oholtzetan lekurik izaten ez duten talde eta dantzariak eszenatoki bat eskaintzea" jomuga duen hitzordua

Lehenengo ediziotik hartutako bidetik jarraituta, kale dantzen inguruan diharduten lagunei Arriola antzokiko oholtza eskaintzeko helburuagaz antolatu dute Aka Dantz. Hirugarren edizioa du bihar jokatu duten Elorrioko lehiaketak.

Lehenengo Elorriko antolatu ziren eta udaberrian Bilbon hamargarrenez egingo duten Break On Stage jaialdiaren filosofia haritik, "askotan lekurik ez daukaten dantza adierazpideetan diharduten talde eta dantzariak eszenatoki bat eta eskura ditugun baliabide tekniko guztiak (argiak, soinua...) eskaintzea" da antolatuzaileen berbetan Aka Dantz lehiaketaren helburua.

Arriola antzokian urtarrilaren 29an, bihar, 18:00etatik aurrera gertatuko dena, lehiaketa bat da. Hainbat sari eskuratzeko aukera parte hartzen duten dantzarietzat: 300 euroko lehenengo saria eta 150 euroko bigarrena eskainiko dizkiete modalitate bakoitzean epaimahaia onentzat jotzen dituzten taldeei.

Izan ere, aipatutako moduan, kaleko dantzen hiru modalitateetan jardungo dute dantzariak. Urban style, Jazz funk eta Breakdance modalitateetan epaimahaia irabazle bana eta bigarren sailkatua hautatuko ditu.

Gutxienez lagun bik eta gehinez sei osatutako taldeetako parte-hartzaileek hiru minutu inguruko koreografiak aurkeztuko dituzte biharko hitzorduan. Dantzari esperientziadunek eta anto-

Musikaren originaltasuna eta kreatibitatea sarituko dituzte, besteak beste

Hainbat sari eskuratzeko aukera da dantzariak bihar Elorriko daukatena

Urban style, Jazz funk eta Breakdance modalitateak jorratuko dituzte

Hiru minutu inguruko koreografiak aurkeztuko dituzte parte-hartzaileek



Luis Madina

lakuntzako kideek osatutako epaimahaia, bere partetik, "lanen kreatibitatea, musikaren originaltasuna, dantzaren kalitatea eta talde lana" hartuko ditu kontutan, adierazi dutenez. Lehiaketarako izena emanda zortzi-bederatzi talde dituztela azaldu digute, galde-tu diegunean, antolatzaileek.

Arriolan jaio zen eta dagoeneko oso egonkortua dagoen Break On Stage jaialdian parte hartu ahal izateko aukera moduan ikusten dute Aka Dantz parte-hartzaile askok: urtarrilaren 29ko lehiaketako sari berezia Break On Stage lehiaketan parte hartu ahal izatea baita. Apirilaren 9an, Bilboko Casillan ospatuko dute. ■ I.E.

MUSIKA > EMANALDIA

Iñaki Salvador Mikel Laboarekin solasean, Berrizko Kultur Etxean

Urtarrilaren 29an, Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko du piano-jotzaileak azkeneko lana

Orain negu bi Laboaren heriotzak sortutako zauri pertsonal eta artistikoa osatzen saiatzeko eta haren eragin pertsonal eta artistikoa eskertzeko modua du Iñaki Salvador jazz musikari donostiarrek *Lilurarik ez-Mikel Laboarekin solasean* diskoa eta zuzeneko emanaldia: Mikel Laboa bere pianoagaz laguntzen jardun zuen denboran harengan-

Laboaren off-eko ahotsa eta Salvadorren piano inprobisazioak



dik jaso zuena zelanbait irauarazteko era da Iñaki Salvadorrek bihar Berrizen aurkeztuko duena. Erreterriako Musikaste jaialdiaren proposamena izan zen, 2009ko maiatzerako, Mikel Laboaren musikaren interpretazioa jazz hirukoteagaz eskaintzea.

Are zehatzagoa zen, baina, Salvadorrek Erreteriatik jaso zuen enkargua: Laboak Bertold Brecht-en testuekin 60ko hamarkadan grabatu zituen kanten bertsoiak eta berak hautatutako Laboaren kanta bere erara eskaintzea.

2009ko maiatzean aurkeztu zuen Iñaki Salvadorrek diskoa

Ikuskizunaren izenburuan jasotzen den "solasean" berbak adierazten duenez, Mikel Laboaren off-eko ahotsagaz elkarrekin-tza egiten du Salvadorrek pianoagaz egiten duen inprobisazioak.

Besteak beste, Mikel Laboaren *Ihesa zilegi balitz*, *Gaberako aterbea*, *Izarren hautsa*, *Txoria txori* eta *Baga, biga, higa* kanten interpretazioa eskainiko du Berrizko Kultur Etxean, 20:00etan hasita, Salvadorrek bihar. ■ I.E.

ZINEMA > EMANALDIAK

Kimuak eta Zinegoak jaialdietako lanak ikusgai

'Kimuak 2009'-ko lagin bat Zornotza Aretoan dugu ikusgai gaur; Zinegoak jaialdiko hainbat lan dakartzate Durangora

Euskal film laburren Kimuak lehiaketara 2009an aurkezturiko zortzi sorkuntza lan ekarriko dituzte gaur, urtarrilaren 28an, Zornotza Aretoan emateko. Besteak beste, Koldo Almandoz, Telmo Esnaleda Nacho Vigalondo zuzendariak lehiaketara aurkeztutako lanak eskainiko dituzte, 21:00etan hasita, Zornotza Aretoan: *Ahate pasa*, *Amona putz*, *Dirty Martini*, *Él*

Zinema zuzendari euskaldunen film laburrak, Zornotzan

Egunotan Zinegoak jaialdian aurkezturiko filmak, Durangon

nunca lo haría, *5 recuerdos*, *Los que lloran solos*, *Marisa* eta *La presa* lanak emango dituzte.

Bestalde, urtarrilaren 22tik 30a arte Bilbon burutzen diharduten Zinegoak gay-lesbo-trans naziarteko zinema jaialdian aurkeztutako filmen aukeraketa bat eskainiko dute otsailaren 4an, 20:30etik aurrera Durangoko San Agustin kulturgunean.

Bariku iluntzeko emanaldian Durangaldeko ikusle goari eskaintzeko *La cita*, *D'une rive a l'autre*, *Födelsedag*, *Dinero fácil*, *Bedfellows*, eta *Fuckbuddies* pelikulak ekarriko dituzte. Durangoko Udalaren Aukera Berdintasun Sailak eta Zinegoak jaialdiak elkarlanean antolatuko dute emanaldia. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal
Gerediaga elkartearen kidea



Herri ikurrak

1876an, orain dela 135 urte, Madrilgo gobernuak ezeztatu zituen hainbat aldakuntza izan ziren gure herrietako gobernamenduan. Gure eskualdeko erakundeetatik gelditzen ziren azken aztarnak desagertu ziren. Gure elizateetako herri ikurrak ere baztertuak izan ziren estatuaren homogeneotasunaren izenean. Bi ziren gure herrietako ikur nagusiak: alkatearen txuzoa eta herriko bandera. 1876an txuzoa baztertu eta haren ordez alkatearen makila jarri zuten. Abenduaren 27an, 'Merinalde Egunean', Gerediagako ekitaldiko mahaiburua Garai, Berriz, Zaldibar, Abadiño eta Iurretako txuzoak egon ziren. Atxondoko Udalak Arrazola eta Axpekoak gordetzen dituela uste dut. Iurretakoa izan ezik, XIX. mendekoak dira. Honek ez du esan gura garai hartan sortutako ohitura zenik, elizateek aurrekoaren ordez garai hartan txuzo berria egin zutela baizik.

Banderak herri honen antolaketan elementu garrantzitsuak izan dira. Euren jatorria Erdi Aroan kokatzen dute ikerlariek. Adibidez, gudarostea herri mailan antolatzean, herri bakoitzak herriko bandera erabiltzen zuen "guda bandera" gisa. XIX. mendeko aldakuntzak herriko banderak baztertu eta nazio bandera nagusitu zuen udaletan. Erabilpenik gabe bazterturik gelditu zirenean galdu ziren gure herrietako banderak, baina... Durangaldeko herri batzuetan banderak erabilpena mantendu zuen. *Dantzari dantzari* erabiltzen ziren, eta ondorioz dantza hauek mantendu zituzten herriek; Abadiño, Berriz, Garai, Izurtza, Iurreta eta Mañaria, herriko ikurrak mantendu egin zituzten nahiz eta "dantzarien bandera" mailara baztertu. Gaur egun kontserbatzen dugun bandera zaharrena Mañariko dugu, 1802koa. Iurreta eta Garaiko bandera zaharrik urte berezia izango dute. Iurretakoa (1911n egindakoa), bere 100. urteurrena dela eta hainbat ekintzaren ardatza izango da urte guztian zehar, eta Garaikoak (1886an Durangoko Euskal Jaietarako egindakoa) 125 urte betetzen ditu, eta uztailaren Garain antolatuko den Durangaldeko Ezpatadantzari Eguneko ikur nagusia izango dugu.

ANTZERKIA > IKASTAROA

Clown ikastaroa otsailean, Pep Vila antzezleagaz

Durangoko San Agustin kulturgunean batuko dira lau egunetan, goizetan, ikastaroan izena ematen dutenak

Otsailaren 21etik 24a arte, Pep Vila antzezle kataluniarrak gidatuta, clown ikastaroa burutuko dute hainbat antzerkizale eta antzezle profesionalak Durangoko San Agustin kulturgunean.

Ikastaroak iraungo duen lau egunetan, 10:00etan hasi eta 14:30era bitarteko lau saio burutuko dituzte, "ikasitakoa desikatzen ikasteko" helburuagaz. Saioen

gidaria den Vilak dioenez, eguneroko bizitzan azkarrak, zoliak eta seguruak izatea positibotzat hartzen den arren, "clownean jarduteko jakina den hori guztia alboratzea" komeni da, "ezer egiten ez jakitea arte bilakatea baita clownaren zutabea", Vilaren berbetan. Hain zuzen ere, "barruan daramagun inozokeria kanporatzea izango da helburua". ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 28 22:00etan
ULANAH
EUSKAL BALKAN FOLK MUSIC
KONTZERTUA. Sarrera doan.

URTARRILAK 29 22:00etan
AMA SAY + R + GORA JAPON
KONTZERTUA. Sarrera + CD: 10euro.

OTSAILAK 11 22:00etan
JABIER MUGURUZA
KONTZERTUA. Sarrera: 10euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

DEBLA

De Norte a Sur & Tabira Musika Banda (Durangaldea)

Urtarrilak 29 • 20:00etan
Urtarrilak 30 • 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11.04 601 07 76 Artekale, 11 Durango

San Blas 2011



abadiño



Zatoz San Blas jaiak
gurekin ospatzera!



ABADIÑOKO
UDALA

San Blas 2011 egitaraua

Urtarrilak 30, domeka

09:00etan, "Abadiño auzorik auzo" ibilaldia. Irten Gerediagako basilizian eta amaitu, 13:00-13:30etan, Txanporta kultur etxean. Irteeran argazki bat egingo dute ibiltari talde osoarekin.

11:00etan, San Blas 2011 Pilota Txapelketako finalaurrekoak, Tornosolo trinketean.

Otsailak 3, eguena. SAN BLAS EGUNA - AZOKA:

Ganadua, baserri-tresneria, burdinaria, ortuariak, fruituak, gazta, txakolina, ogia, eztia, artisautza eta landareak.

XIX. ABELBURU ERAKUSKETA.

09:00etan, Kalejira herriko txistularien.

10:30etan, Umeentzako tailerrak Txanporta kultur etxeko arkupean.

11:00etan, Meza nagusia San Trokaz elizan.

12:00etan, Bertsolariak Ferialeku plazan: Gogaikarri bertso eskolakoak, Xabier Amuriza, Garikoitz Sarriugarte eta Eñaut Uruburu.

12:30etan, Herri-kirolak probalekuan; ondoren nekazaritza sarien banaketa.

16:30etan, Erromeria Ferialeku plazan:

Lotxo taldea

17:00etan, Idi-probak.

22:00etan, Idi-probak.

Otsailak 4, barikua. SAN BLAS TXIKI EGUNA

19:30etan, Abadiñoko Done Zezili abesbatzak Santa Ageda koplak abestuko ditu kalerik kale.

19:30etan, Pilota desafioa: "San Blas Iparralde-Hegoalde 2011". Finala eskuz, Tornosolo trinketean.

22:00etan, Idi-probak

Otsailak 5, zapatua

14:00etan, Emakume baserriar eta artisauen bazkaria Soloa jatetxean. Izena emateko deitu telefono zenbaki honetara: 662 326 118. Azken eguna, otsailaren 3a.

17:00etan, Idi-probak.

17:00etan, IV. Eskola Igeriketa Liga udal igerilekuetan: Igorre, Tabira, Zornotza, Ondarroa, Atxondo, Lauaxeta, Astola, Gernika eta Lekeitio.

18:00etan, *Sol-La-Si-La-tzen* ikuskizuna (Panpin Panpox taldea) Txanporta kultur etxean. Sarrerak euro leian Udal Mediatekan eskuragarri.

22:00etan: Idi-probak.

Otsailak 6, domeka

11:00etan, San Blas 2011 Pilota Txapelketako final nagusia, Tornosolo trinketean.

18:00etan, Idi-probak.

Otsailak 7, astelehena

17:00etan, Idi-probak.

22:00etan, Idi-probak. Ondoren, sari banaketa.

Otsailak 11, barikua

19:00etan, Mahai-ingurua Errota kultur etxean: "Baserriko produktuak vs kalitatea".

Otsailak 12, zapatua

10:00etan, XXIII. Burduntziko bildots txapelketa. Txakolin erakusketa

14:00etan, Bildots bazkaria probalekuan. Bazkalondoa Alai taldeak girotuko du.

Otsailak 13, domeka

11:00etan, Eskola arteko krossa (Bizkaiko txapelketa) Astola auzoan.

ABADIÑOKO GAZTETXEA ETA TXOSNAGUNEA

Urtarrilak 28, barikua

21:00etan, Bertso afaria: Arkaitz Estiballes eta Beñat Ugartetxea, Gaztetxean. Txartelak Larrano tabernan salgai. Ondoren, Koipelustre koplak jarrien txapelketako sari banaketa.

Otsailak 3, eguena

10:00etatik aurrera, txosnak zabalik.

Otsailak 4, barikua

22:00etan, Murder Pink taldearen kontzertua Gaztetxean.

23:00etan, Durangaldeko taldeen jaialdia txosnetan: **Disorders**

(Zaldibar), Zain (Berriz), Edan (Iurreta/Durango).

Otsailak 5, zapatua

21:00etan, kontzertuak Gaztetxean: Trastorno, Arale eta Oppugno.

23:30etan, erromeria txosnetan Tximeleta taldeagaz (Etxarri).


OHARRA

Otsailaren 16tik martxoaren 4ra, Argazki Lehiaketako argazkiak ikusgai egongo dira Txanporta kultur etxean.

ORDUTEGIA: Astegunetan, 10:00etatik 20:00etara.



Askatasun etorbidea 48 • 48200 Durango
Tel.: +34 94 681 02 48 • Fax: +34 94 621 77 15





‘Auzorik auzo’ ibilaldia, herria ezagutzera emanez

Ibilbidean zehar aurkituko dituzten lekuetako hainbat toponimo eskuorrian jaso dituzte

Hamabi Harri auzo elkar-teak Abadiñoako auzoak zeharkatuko dituen *Auzorik auzo* ibilaldia antolatuko du domekan. Sinatze ekitaldia Gerediagako baselizan egingo dute, 08:30ean, eta 09:00etan, familia argazkia atera ondoren, ibilbideari ekingo diote.

Ibilbidea: Gerediaga-Traña-Gaztelua-Muntsaratz-Irazola-Sagasta-Mendiola-Zelaieta

Traña, Gaztelua, Muntsaratz, Irazola, Sagasta eta Mendiola zeharkatu eta gero Zelaietako kultur etxean elkartuko dira eguerdiko 13:00ak aldera. Bertan luntxa eta erromeria egongo dira. Ibilaldi amaieran hainbat sari banatuko dituztela azaldu dute Hamabi Harri elkarteko kideek.

Aurtengo edizioko nobedade moduan, ibilbidean zehar aurkituko dituzten lekuetako hainbat toponimo eskuorrian jaso dituzte. Abadiñoako toponimiaren inguruan kaleratuko duten lana aintzat hartu dute, leku izenak ezagutzera emateko. Guztira, 76 dira zerrendan bildu dituzten lekuen izenak.



Bi saio entzungai, bertsozaleen gozagarri

Bertso afaria antolatu dute bariku gauerako, eta San Blas azoka egunean Ferialeku plazan ere bertso saioa izango da

Bertso saioak izango ditugu entzungai Abadiñoako jaietan. Bertso afaria antolatuko dute Gaztetxean urtarrilaren 28an, 21:00etan. Arkaitz Estiballes Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazlea eta Beñat Ugartetxea finalista

Arkaitz Estiballes eta Beñat Ugartetxea bertso afarian elkartuko dira gaur Gaztetxean

mallabitarra izango dira bertsoan. Ondoren, Koipelustre koplak jarrien txapelketako sariak banatuko dituzte.

Azoka egunean, Ferialeku plazan Gogaikarri Abadiñoako bertso eskolako kideez gainera, Xabier Amuriza, Garikoitz Sarriugarte eta Eñaut Uruburu arituko dira.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DURA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Iturririxo kalea, 7 **Abadiño**

LARRANO TABERNA

Sotagurri kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: enlaga@larrano.es
MATIENA ABADIÑO

urutiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Azoka: artisautza eta nekazal produktuen plaza

Ortuko zein landare haztegietako produktuak, ganadua, nekazal makineria eta artisautza

Euren baserrietan landutako produktuak San Blas egunean Zelaietan batzen den jendetzaren aurrean erakutsi eta salgai ipintzeko aukera delako, egun berezia izaten da otsailaren 3a baserriarrentzat. Durangaldeko zein beste eskualde eta herrialde batzuetatik etorritako nekazari eta abeltzainek egutegian bereziki markatua izaten dute goizean oso goiz hasten duten otsailaren 3a.

Goizean goizerako, 09:00etarako erakusmahaiak dotore atonduta eta euren ortu zein ezkaratzetako produkturik onenekin hornituta edukiko dituzte beste urte batez azokan parte hartzen duten ekoizleek. Baratzeko

produktuak salgai ipiniko dituzten 72 ekoizle itxaroten dituzte, esaterako, Zelaietan; urteroko hitzorduari falta-rik egingo ez diotenak asko.

Ortuko produktuak ez eze, landare haztegietakoak ere izango dira, eta baita nekazaritza makineria eta esku-langileen 26 erakusmahai ere.

Ganaduaren karpak

Bertako abelburuak bilduko dituen karpa bat, beste zortzi arrazatako abelburuak bilduko dituena (64 abelburu inguru ekarriko dituzte gune horretara, eta animalia bakoitzari buruzko informazioa eskainiko dute) eta baserriarrek azokara salerosketarako ekarritako abelburuak hartuko

dituen hirugarren karpa ere atonduko dute. Ganadua erosteko aukera izango dute, beraz, baserriarrek, eta erakusketan ipiniko duten ganadua bertatik bertara ikustekoa bisitariek.

26 esku-langileren lana ikusi eta saltzeko beste horrenbeste erakusmahai

Ikusgai eta salgai ipiniko dituzten abelburuak, hiru karpatan bilduta

AZOKA DATUETAN

Ordutegia

Goizeko 09:00etatik eguerdira arte

Ganadua

Bertako arrazako 64 abelburu inguru, eta beste zortzi arrazatako beste horrenbeste

Ortuko produktuak

72 erakusle

Landare haztegiak

10 erakusle

Artisauak

26 erakusle

Nekazaritza makineria

20 erakusle



Ana Fernández

JUAN BERISTAIN
Salmenta eta konponketa **NEKAZAL TRESNAK**

San Blas egunean Abadiñon topatuko gaituzu

HONDA STIHL SRME pasqual VIKING CARON BCS

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel-Faxa: 94 623 18 03

HOTEL
☆☆ **San Blas**

□ Arrati 2000 □ Jatetxea

946 814 200 - 946 814 516
Faxa: 946 814 200
Bilbo-Donosti errepidea 32. Km
48 220 MATIENA - ABADIÑO

Jaia islatuko duen argazki onenaren bila

Rallytik lehiaketarako jauzia eman zuten iaz Abadiñon, eta aurten, horrenbestez, bigarren edizioa beteko du Argazki Lehiaketak. Iazko arrakasta kontuan hartuta erabaki dute formatu horretan jarraitzea; "kalitate eta harre-ra bikaina" izan zutelako aurkeztutako lanek, udal arduradunek azaldu dutenez.

Izena ematen duten lehenengo 42 lagunek parte hartu ahal izango dute txapelketan. San Blas II. Argazki Lehiaketako parte-hartzaileek festa ezagun honegaz zerikusia duten mota guztietako argazkiak aurkeztu ahal izango dituzte, horixe baita gaia. Argazkiak egiteko, edozein teknika erabili ahal izango da, eta digitalki apaindu ahal izango dira, autoreak egoki baderitzo.

Lehiakide bakoitzak bi irudi aurkeztu ditzake, gehienez. Lanok Errota kultur etxera edo Udal Mediatekara eroan beharko dira; argazkiak aurkezteko azken eguna otsailaren 11 izango da. Sari banaketa, berriz, otsailaren 16an egingo dute, Txanporta kultur etxean.

Lanak ikusteko aukera

Udalak 400 euroko saria emango dio irudi onena aurkezten duen autoreari; bigarren saria 250 eurokoa izango da, eta, gainera, herriko lehiakide onenari 150 euroko akzesita emango diote. Aurkeztutako obra onenen hautaketa erakusgai egongo da Txanportan, otsailaren 16tik martxoaren 4a arte.



Bost egunez luzatuko da idien dema klasikoa

26 idi-parek neurtuko dituzte indarrak, otsailaren 3an hasita hilaren 7a arte, Euskal Herriko proba garrantzitsuenetakoan

Probalekuan izango da, aurten ere, San Blas jaietako hitzordu esanguratsuenetakoa: Idi-proben sariaketa, hain zuzen ere. Gainera, Euskal Herrian izen handiko plaza da Abadiñokoa; horren adierazgarri da parte-hartzaile kopurua. Guztira, 26 pare lehiatuko dira San Blas egunean hasi eta otsailaren 7an amaituko diren saioetan. 1.750 kiloko harriari egin beharko diote tira idiek.

Idi-buztarri bakoitzaren oinarritzko pisua 1.100 kilokoa izango da, eta hortik aurrera, kilo bakoitzeko kilo eta erdiko gainkarga ipiniko diete. Idiak goizeko 10:00etan pasatuko dira herriko baskulatik. Idi-pare bakoitzak 30 minutuko saioa egingo du, eta, ondoren, antidoping

Euskal Herrian izen handiko plaza da Abadiñokoa; horren adierazgarri da parte-hartzaile kopurua

kontrola pasatuko dute. Marka onena ezartzen duenak 2.000 euro, garaikurra, mantak eta txapelak eroango ditu etxera. Lehenengo 18 pareek sariren bat jasoko dute, antolatzaileen arabera.

Marka onena ezartzen duenak 2.000 euro, garaikurra, mantak eta txapelak eroango ditu etxera

Lehia bizia

Bizkaitarren eta gipuzkoarren arteko borroka ikusi ahal izango da probalekuan. Aipatzekoa da Errenteriko Irarreta anaiek hiru pare ekarriko dituztela, eta Elgoibarko Soarte anaiek beste bi. San Blas egunez, 17:00etan eta 22:00etan izango dira saioak. Hilaren 4an 22:00etan, eta 5ean berriro ere arratsalde zein gauetz. Domekan 18:00etan lehiatuko dira, eta azkenik, otsailaren 7an, 17:00etan eta 22:00etan. Orduan emango dituzte sariak.

di-da komunikakzioa

disinua / itzulpena / akzioa
www.di-da.com

Txanporta plaza, 4 B behea 48220 Abadiño (Bizkaia) tel. 94 681 02 61 faxa. 94 681 20 79 info@di-da.com

BANAKE TAK MIOTA S.L.

Miota, 6 behea - 48230 ELORRIO
Tel.: 94 623 18 92 - Faxes: 94 682 06 51

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzailea:

Erromeria eta rocka gozagai plazan eta Gaztetxean

Gerribuelta mugitzeko zein buruko tximak astintzeko aukera eskainiko du musika menuak



Chris Martin

Musikari dagokionez, aitzakiarik bako egitaraua osatu dute; gustu guztietarako kontzertuak egongo dira aurten Sanblasetan. Gazteteak abiatuko ditu musika

Hiru urteren ondoren bueltan da lurreta eta Durangoko kideek osatutako Edan taldea

Gaztetxean Trastorno, Arale eta Oppugno taldeek joko dute, esaterako

gauak, eta handik plazara tokialdatuko da ondoren jai giroa.

Otsailaren 4an, 22:00etan, Murder Pink talde zornotzarrak joko du Gaztetxean; ondoren Berrizko Zain, Zaldibarko Disorders eta lurreta-Durangoko Edan taldeen txanda izango da plazan. Azken horiek bueltan dira euren musika alai eta dantzagarriagaz.

Otsailaren 5ean, 21:00etan, Mañariko Trastorno, Durangoko Arale eta Castellóko Oppugno taldeek joko dute Gaztetxean; segidan Etxarriko Tximeleta taldeak erromeria eskainiko du plazan.

Kontzertu horiez gainera, otsailaren 3an, arratsaldean, Lotxo taldeak joko du Ferialeku plazan, eta hilaren 12an Alaik girotuko du bildots bazkariaren bazkalondoa.

Urtero legez pilota eguneroko ogi izango da San Blasetan. Aurten, ohiko txapelketaz gainera, Iparraldean Hegoaldea desafia antolatu dute.

Urtarrilaren 30ean, 11:00etan, San Blas Pilota Txapelketako finalurrekoak jokatuko dituzte Tornosolon; lehenengo neurketan Mikel Gonzalez eta Ander Martin arituko dira Gordon eta Ugarteren kontra eta, ondoren, Rober Uriarte-Iker Etxebarria eta Liher Gandiaga-Ander Antxia bikoteak lehiatuko dira. Irabazleen arteko finala otsailaren 6an, 11:00etan, jokatuko da.

Horrez gainera, hilaren 4an, 19:30ean, Hegoaldeko eta Iparraldeko pilotarien arteko desafia prestatu dute. Hegoaldea

ordezkatzuz, buruz buru Asier Aspuru eta binaka Aitor Arabiourrutia eta Ismael Larrazabal ariko dira. Iparraldekoek oraindik ez dute pilotarien zerrenda jakinarazi.

Pilotaz gainera, krosa eta igeriketa erakustaldiak eskainiko dituzte

Bestelako kirol eskaintzak ere badaude. Hilaren 5ean igeriketa liga antolatu dute udal igerilekuan: Igorre, Tabira, Zornotza, Ondarroa, Atxondo, Lauaxeta, Astola, Gernika eta Lekeitioko taldeak batuko dira. Azkenik, herri kirolak eta eskola arteko krosa ere egingo dira, hilaren 3an eta 13an.

Pilota protagonista Tornosolo trinketean

Hegoaldea-Iparralde desafia jokatuko dute



Laura plus
Ondua

Laura
Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

leapaindegia
elebe

Iturritxo 2 behea • 48220 Abadiño
Tel.: 94 655 01 05

BEATRIZ
CASADO

ESTETIKA
MASAJEAK
OSTEOPATIA

Iturritxo 2 behea (Elebe ileapaindegia)
Tel.: 696 838 735



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
 - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko ateak. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

Erosketa aukeradun alokairua



Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56

www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com

“San Blas ondorengo afonia kantuan etortzen da onera”

Eztarria sano edukitzea ez da batzuentzat erraza izaten San Blas egunaren biharamunean. Done Zezili abesbatzako lagunak lau ahotsetara ibiliko dira Santa Agedako koplak kantatzen. Kalerik kale kantuan ibiltzea asko gustatzen zaiela azaldu digu Yolanda Etxeita abesbatzako zuzendariak.

Noiztik irteten duzue Done Zezili abesbatzakoek Santa Ageda bezperan?

Duela ia hamaika urte sortu zen abesbatza, eta ordutik urtero irteten dugu Santa Ageda bezperan, Gabonetan eta San Trokazetan. Hori gustatzen zaigu; kalean kantatzea. Taberna inguruetan eta kalejiran ibiltzen gara gehienbat, herriko kankak kantatzen. Santa Ageda bezperan ere, Zelaieta gutxian zehar ibiliko gara, batera eta bestera. Kantu-poteoak egitea gustatzen zaigu.

Sanblasetako kordelek laguntzen dute biharamunean eztarria sano edukitzea?

Beti egoten dira arazoak Santa Ageda bezperan. Batak afonia daukela, besteak ez dakit zer... San Blasetan juergan ibiliz gero, hurrengo eguna gogorra da! Gero, trago batzuk hartuta konpontzen da hori.

Koplak kantatzen korukoak bakarrik ibiliko zarete edo herri-tarrak ere batzen zaizkizue?

Jendea gerturatzen da, eta aurten, barikua izanda, gainera, jende ugari ibiliko da, eta seguruenik, bai, gerturatuko zaigu. Gogoan daukat zelan behin Durangon Goienkalen eta beste baten Bilbon kantatu genuenean ere, jende asko gerturatu zitzaigun. Orain ez dago horrelako ohiturarik, baina koruko jendeari kantatzea asko gustatzen zaio. Kalean ibiltzea ere bai, eta beraz, gu beti kalean.

Yolanda Etxeita •

- Done Zezili abesbatzako zuzendaria
- Musika irakaslea da Abadiñon eta Rock Izar Eskolan, Durangon

Zenbat lagun zabilzate?

Hogeitabost gara. Gazteenak 35 urte izango ditu, eta nagusienak 70 inguru. Gehienek ez daukate solfeorik, baina ahotsak oso ondo hartzen dituzte. Afizio handia daukagu eta jendea oso pozik dabil.

Kalerik kale ibiltzea da orduan zuen gustuko lana...

Hori gustatzen zaigu. Martxoaren 20an Durangaldeko txistulariekin kontzertua daukagu Abadiñoko elizan eta beste inoiz ere igo dugu eszenatokira, baina, beldurragatik edo, kalean gusturago ibiltzen gara. Euskal jaietan-eta beste koru batzuekin ere ibili gara Donostian, Bilbon, Gernikan... eta aurten Donibane Lohitzunera goaz. Akordeoiagaz, gitarragaz... lagun-duta kantatzen dugu. *A Capella* ez.

Zelako errepertorioa daukazue?

Denetik kantatzen dugu. Euskal abesti ezagunak asko, baina gospela eta ingelesezko kankak ere bai. Batzuek esaten dute ingelesez ez direla atrebitzen, baina esaten den moduan idatzita jartzen diet eta kitto. 'In the jungle' barik 'In de iangel' ipini eta kito!



ERLIA
CONTENEDORES

www.contenedoreserlia.com

646 247 350
946 814 107

- Obra-hondakinen bilketa hainbat neurriko edukiontzietan
- Geure zabortegia

- Agregakinen banaketa
- Industria eta eraikuntzako ondar bizigabeen kudeaketa

Arta auzoa, z/g • 48220 ABADIÑO • Fax: 946 810 204



IKUSKIZUNA > FLAMENKOA

Durangoko Musika Banda eta De Norte a Sur taldea elkarlanean: 'Debla'

Urtebete baino gehiagoko lanaren emaitza da Durangoko San Agustin-en De Norte a Sur Abadiñoeko elkarteak Tabira Musika Bandaren laguntzagaz eskainiko duena. Zapatuko eta domekako emanaldietarako sarrera guztiak saldu dituzte; **Alicia Gallardo** zuzendariak aurkeztu digu 'Debla' ikuskizuna

Zelan eta noiz sortu zen ikuskizun hau antolatzekeo ideia?
Orain urte eta erdi inguru sortu zen ideia: Gasteizko Musika Bandaren koordinatzailearen proposamena jaso genuenean. *Arte y embrujo* izena zuen ikuskizun batean genbiltzan orduan, eta zerbait berria, desberdina egitea proposatu zigun.

Proposamenaren aurretik bazeneukaten Gasteizko Musika Bandagaz hartu-emanik?
Ez. Euren proposamena jaso aurretik ez genuen zuzenean elkar ezagutzen, baina gure lana ezagun eta gogokoa zuelako egin zigun proposamena. Ikuskizuna osatzeko erabili genitzan gustatuko litzaizkioken obren zerrenda eman zigun; Sarasate-renak, esaterako. Eta hortik abiatuta ekin genion.

“Ikaragarria izan zen estreinaldian Gasteizko Printzipal antzokia betetzea”

Estreinaldi handi eta berezia izan zuen 'Debla'-k, Gasteizko Printzipal antzokian.
Ikaragarria izan zen guretzat Printzipal antzokia beteta ikustea eta Gasteizkoa lako musika banda batez jardun ahal izatea... Ikusle goaren harrera ere ikaragarri ona izan zen.

Gasteiztik etorri zitzaizuen, beraz, proposamena?
Honelako obrabaten ideia aspalditik neraman barruan: dantza eta musika uztartuko zituena. Ez nekien zelan ez noiz egingo nuen, baina izenburua zein izango zuen, esaterako, banekien: *Debla* deituko zela; “jainkosa”, ijitoen hizkuntzan. Toná bat da, gutxien ezagutzen diren flamenkoaren paloetako bat. Andaluzian lagun dudan flamenko familia bati omenaldia egin gura izan diot ikuskizunagaz. Familiako alabaren izena da Debla.

Zelan sortu zen familia horregaz daukazu hartu-emana?
Hamazazpi urte nituela joan nintzen lehenengoz Andaluziara; sarritan joaten naiz flamenkoaren inguruko ikastaroetara.

Dantza eta musika uztartzen dituen ikuskizuna da asteburuan erakutsiko duzuen...
Dantza eta musikaren uztartzea da ikuskizuneko, bai: bandaren musika, hirukote flamenkoaren musika eta dantza nahasten dira *Debla* ikuskizunean. Balia-bide horien uztartetarekin, istorio bat kontatzea lortu dugu. Hain zuzen ere, horixe da lan gehien eskatu duguna: musikaren eta dantzaren bitartez istorio bat kontatzea zaila baita.

Zeintzuk dira ikuskizunean lantzen dituzuen gaiak?
Desamodioa eta maitasuna, jelskortasuna... dira gaietako zenbait: tragedia erromantiko bat da emaitza. Bere ezkontzaren aurreko egunean, umetatik senargai jakina daukan Debla protagonistaren bizitzan zelan beste maitale bat agertzen den kontatzen du.

Zaila da emanaldi bakoitza banda batez egitea?
Itzela da. Izan ere, bandako eta gure taldeko partaide gehienak ere ez dira profesionalak. Ogi-bide dugun bakarrak gitarrista, perkusionista eta neu gara, eta besteek euren denbora libreтик atera behar dute lana prestatzeko astia. Lan gogorraren poderioz, baina, profesionalak egingakoa dirudi emaitzak.

Zer adineko jendeak hartzen du parte ikuskizunean?
Gazteenak 16 urte eta zaharrena 62 daukate. Denetarik daukagu, izan ere, obrak berak eskatzen baitu adin guztietako jendea: Deblaren eta Juanen familia agertzen da, anaiak, osabak...



“Musika eta dantza flamenkoaren uztartzea da ikuskizuneko”

“Umetatik senargai jakina daukan Debla izeneko emakumea da protagonista”

Zelan gerturatu zinen flamenkoaren mundura?
Oso gaztetatik daukat harra: aita andaluziarra neukan, eta hark sartu zidan umetan harra. Beti egon gara horretan sartuta. Gero De Norte a Sur elkarteak sortu genuen, eta urterik urte jende gehiago batzen zaigu: irailero sortzen da talde berriren bat.

Zer beste hitzordu dituzue datozen asteetan?
Dantzari gazteekin ikuskizun bat prestatzen gabiltza, maiztzean edo ekainean aurkeztu gura duguna. Datorren asteburuan hirukote flamenkoagaz eta abesbatzagaz Galiziara goaz, eta Eskoriatza, Malaga eta Soriara ere joatekoak gara. ■ I.E.



R.P.S. 214/06

A. Urreta
podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Ainara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

Diseinua - Dekorazioa - Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak - Gremioen koordinazioa - Altzariak - Osagarriak

a-metz
[barne] diseinua

linteriors studio

www.a-metz.com

Ibaizabal, 3A behea
Tel.: 94 681 84 81



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27


Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro



Goiuria Jatetxea

Goiuria auzoa, 21 Iurreta
Tel.: 94 681 08 86

Jatetxe guztiz berriztua. Eguneko menuak. Asteburuko menu bereziak.
Karta. Ospakizunetarako menuak: ezkontzak, enpresa bazkariak, ...
Aurrekontu guztietarako menuak.

KIROLAK >

Zuloan dagoen Berrizek oraingoz ezin izan du fitxaketarik egin

Bururik altxatu ezinda jarraitzen du Berrizek ohorezko mailan; taldea indartzeko fitxaketak lotzeko ahaleginetan dabilta azkenaldian, baina oraingoz ezin izan dute taldera inor batu



Joan zen asteburuan 98. minutuan lortu zuen Bermeok berdinketaren gola Berrizburun jokaturako partiduan. Kepa Aginako

Zertarako ingurumarietan ibili: Berrizek panorama beltza du aurretik. Eurak dira Kulturalaren ondoren goren dabilzan eskualdeko taldea (ohorezko mailan), baina aurreko gorriak ikusiko dituzte mailari eutsi gura badiote. Lehenengo itzulia joan denean, azkeneko daude salbaziotik lau puntura, eta bi neurketa bakarrik irabazi dituzte.

Orain arte dena oker irten zaie. Zortea ere kontra dute; berez txikia den taldeari (18 jokalaria) sarritan lau-bost jokala-

ri falta izan zaizkio lesioengatik, eta taldea Berriz Bko (lau maila beherago jokutzen du) jokalariekin indartu behar izan dute.

Neguko merkatuan jokalariek fitxatzeko ahaleginetan dabilta, baina oraingoz ezin izan dute inor batu. Ekonomikoki klub xumea izateak ere ez du laguntzen. Jokalari bat fitxatzekotan izan ziren, baina maila berean dabilen Galdakaok ekonomikoki eskaintza hobea egin zion, eta harako bidea hartu zuen. "Kulturala, Eibar B, lurre-

ta... hainbat ate jo ditugu, baina oraingoz emaitzarik barik", penatzen da Andres Olabarria entrenatzailea. Oro har, taldeko lerro guztiak indartu gura litzuzke, baina, batez ere, zentral baten beharra ikusten du.

Zelaian ere zorte barik dabilta. Joan zen astean, Berrizburun, Bermeok 98. minutuan lortu zuen berdinketaren gola: "Gu larri gabiltza, egia da, baina epaileen lanak ere sarritan ez digu bat ere lagundu", dio Olabarriak. ■ J.D.

Fitxatzekotan zeuden jokalaria bat Galdakaora joan da azkenean

A.Olabarria: "Epaileen lanak sarritan ez digu bat ere lagundu"

Ziortza Isasik borobil hasi du belodromoko txapelketa

Joan zen asteburuan Challenge Bizkaina Ziklopistard txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu zuten Berrizko belodromoan, emakumeetan eta kadete eta gazte mailetan. Emakumeetan Ciclos Iturriaga Autos Elorrio taldeko Ziortza Isasik erakustaldia eman eta jokaturako lau probetan garaipea lortu zuen. Durangaldeko Beste Alde taldeko Iraide Garciak bigarren egin zuen proba denetan. Gazte eta kadeteetan Aitor Reyk eta losu Angoitiak irabazi zuten.

Bigarren jardunaldia Trapagarango belodromoan jokatuko dute otsailaren 6an. ■ J.D.

Partidu estuan, Berriz txapelkun esku pilotan

Joan zen asteburuan Durangaldeko pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten Munitibarko pilotalekuan, eta Berrizek jantzi zuen txapela nagusien mailan. Partidu estu batean 22-21 menderatu zuen lurreta, eta galtzen hasi arren (8-2) partidu erditik aurrera norgehiagokari buelta emateko kapaz izan ziren.

Gazteetan lurretak jantzi zuen txapela, Durango 18-13 menderatuta. Kadete mailan Mallabiko bikotea izan zen onena, eta 18-11 irabazi zioten Lea Ibarriari. Gaztetxoetan lurretak ezin izan zuten Markinagaz (18-9). Umeetan Atxondok irabazi zuen eta umetxoetan Lea Ibarriak. ■ J.D.

Antxia, Amantegi eta Perosanz afizionatuetan

Frontis enpresak bere funtzionatzeko modua aldatuko du. Kirol ikuskizunak antolatuko ditu eta esku pilota arloan zirku bat sortu gura du. Txapelketa horietan gura dutenek izena eman ahaliko dute, eta pilotariek Frontisek ezarritako sari ekonomikoak irabazi ahaliko dituzte. Beraz, orain Frontisek ez du pilotaririk nominan. Ondorioz, enpresa hartan zebiltzan eskualdeko hiru pilotariak, Ander Antxia eta Egoitz Amantegi abadiñarrak eta Eneko Perosanz berriztarra, afizionatuetan dabilta orain. Antxiak sei urte eman ditu Frontisen. ■ J.D.

Spiderman ere surflari Lagako hondartzan

Arrakastatsua izan zen Zutundu SUP eta Surf Eskolak joan zen asteburuan antolatutako I. Durangaldeko Surf Jaialdia. Lehengo zapatu goizean Lagan batu ziren mozorrotuta, eta kostalde hartako olatuak probatu zituzten.

Ondoren, Plateruenean jarraitu zuen jaiak. Bideo emandietara eta horien ondorengo kontzertuetara 350 bat lagun batu ziren: "Egia esanda, ez genuen hain harrera onik itxaroten eta oso pozik gaude lehenengo aldi honegaz", adierazi du Zutunduko kide Txomin Magdalenak. ■ J.D.



Mota guztietako mozorroak jantzi zituzten Lagan. Zutundu

Berasaluze, bueltan den Irujoren kontra

Gaur gauean Binakako Pilota Txapelketako bosgarren jardunaldia dagokion partidua jokatuko dute Pablo Berasaluzek eta Alexis Apraizek, Juan Martinez de Irujo eta Merino II.aren kontra. Bikote biek bina garaipen eta porrot dituzte.

Bengoetxea VI.aren eta Ruizen kontrako lehian Berasaluzek orain arteko partidurik onena jokatu zuen, eta 22-17 nagusitu ziren. Irujo ere joan zen asteburuan bueltatu zen aste biko lesiotik eta Merino II.ak eta biek erraz menderatu zituzten Gonzalez eta Laskurain (22-10). ■ J.D.

25. urteurrena zilarrezko mailan ospatuko dute

Durango Ilarduyak ohorezko B mailari matematikoki eustea ahalbidetzen dion garaipena lortu du Hernaniren kontra (29-20).



Talde bakoitzak launa entsegu lortu zituen Arripausuetan jokatutako norgehiagokan. Jon Iglesias

Durango Ilarduyak liga hasieran markatutako helburua lortu du. Liga amaitzeko jardunaldi baten faltan, mailari eusteko adina puntu batu dituzte, eta asteburuan presiorik barik egingo diote bisita Getxori. 25. urteurrena ohorezko B mailan ospatuko du DRTko gizonen talde nagusiak.

Joan zen asteburuan, Hernaniren kontrako partidua

A.Gallastegi: "Joko aldetik apurka hobetzen gabiltzala uste dut"

Asteburuan Getxoren kontra jokatuko dute azken jardunaldian

atarian, bestelako aldarrea zuten jokalariek. Zaleen aurrean segurtatu gura zuten maila, eta tentsioa nabaria zen. Zorionez, urduritasunak akuilu lana egin eta intentsitate eta bizitasun handiz jokatuko zuten Durangoko taldeak: "Garbi ikusi zen zein taldek zuten puntuen premia handiagoa", dio Aratz Gallastegi entrenatzaileak. Ondorioz, partidu txukuna osatu ondoren, 29-20 irabazi zioten Hernaniri, Arripausuetara gerturatutako zaleen pozerako. Gainera, partidu entrenigarria eskaini zuten talde biek, launa entsegu lortu zituztelako.

Denboraldiko balorazioa egiteko eskatuta, Gallastegi pozik dago "helburua bete" dutelako, eta "joko aldetik apurka hobetzen gabiltzalako". Hala ere, behin baino gehiagotan adierazi duen "konpromiso falta" oraindik ere somatzen du: "Aurten hainbat jokalarik konprometi-

tu izan ditugu taldean, baina horien konpromisoa bakarrik ez da nahikoa. Beste batzuei jarraitkortasuna falta izan zaie, eta horrela ez da erraza denboraldiari aurre egitea".

Baliteke Espainiako Kopako lehen lehian Hernani bera egokitzea

Kopa jokatuko dute

Asteburu honetan Getxoren kontra jokatuko dute, itxura ona eman eta lehiakor jardutea beste helbururik barik. Hurrengo asteburuan, berriz, Espainiako Kopari ekingo dio Durango Ilarduyak. Oraindik ez dakite nor izango duten arerio lehenengo kanporaketan, baina baliteke Hernani bera egokitzea, zozketa egin orduan gertutasuna faktore bat delako. ■ J.D.

Gotzon Gomez
Errugbi entrenatzailea



Mailari eutsi diogu

Denboraldi hasierako zutabeen aipatu nuen ohorezko B mailan faborito nagusi bi ikusten nituela (Getxo eta Oviedo), eta iragarpena ia bete egin da. Getxo ikusten nuen faborito, eta liga amaitzeko partidu baten faltan multzoko txapeliduna izan da, partida bakarra galduta. Ohorezko mailarako promozioa jokatuko du Les Abelles edo Madrileko CRCren aurka. Gure multzoko bigarren tokia oraindik erabakitzeko dago, eta sekulako lehia izango dugu Vigo eta F.C. Bartzelonaren artean.

Durango Rugby Taldeari erreparatzen badiogu, iaz baino arinago lortu du mailari eustea, ez duelako promozioa jokatuko beharrik. Aurten etxean emandako irudi ona azpimarratu beharra dago. Zortea alde izan balute ziurrenik lasaiago ibiliko ziratekeen denboraldian zehar, baina une erabakiorretako akatsek, eta batzuetan epaileek hartutako erabaki zalantzarrik, ondo merezitako puntu batzuk alde egitea ekarri dute, eta horrekin batera betiko estuasunak. Lasaitasun puntu hori lortzen dutenean joko ona erakusteko gai dira, eta horren lekuko da Hernaniren aurkako dema. Beraz, beste urtebetez arituko dira hor goian, aurtengo ospakizuna borobilduz.

Amaitu baino lehen DRTrako oso garrantzitsua izan den pertsona bat gogoratu nahiko nuke, Pedro Olivares Duñabeitia "Perri". Urte hasieran joan zitzaigun, baina beti izango dugu gure artean. Hasierako urte horietan beti genuen laguntzeko prest. Berak ez zekien ezer errugbiari, eta ziurrenik behar ere ez, baina garrantzitsuak ziren hainbat gauza irakatsi zitzaigun. Goian bego Perri jauna, eta eskerrik asko.

Adituarentxokoa

Etxean indartsu dabil Elorrioko Buskantza

Bederatzitik zazpi irabazita, sailkapenean eroso kokatuta daude bosgarren postuan

Elorrioko Buskantza denboraldi ona osatzen dabil nazional B mailan, eta bigarren itzulia hasi berri dutenean, sailkapenean eroso kokatuta daude bosgarren tokian. Gainera, taldea golegile dabil; Laskorain biga-

Nazional B mailan golik gehien sartu duten bigarren taldea dira

rren sailkatuaren atzetik golik gehien sartu dutenak dira: 76 gol. Orain arte, punturik gehienak etxean lortu dituzte. Bederatzi neurketatik zazpi irabazi eta bakarra galdu dute Elorrioren. Kanpoan, aldiz, partidu bat irabazi dute.

Joan zen asteburuan, etxean, 0-1 galtzen joan ziren atsedendira Gernikaren kontra, baina bigarren zatian Txanklas eta Alexen golekina buelta ematea lortu zuten (6-2). ■ J.D.

Kulturalak Rodriguez aurrelaria fitxatu du

Leioa taldetik ekarri dute; "azkarra eta teknikoki ona" dela dio Axier Intxaurragak

Durangoko Kulturalak aurrelaria indartu du Cesar Rodriguez fitxatuta. Hirugarren mailako Leioa taldetik ekarri dute denboraldia amaitu arte, eta orduan erabakiko dute jokalariaz jarraitu ala ez. Jonatan Iglesias jokalariek, berriz, alderantzizko bidea egin du; Kulturaletik Leio-

Galiziarra da, 30 urte ditu eta Beasain taldean ere ibilia da

ra joan da. Rodriguez Galizian (Pontevedra) jaio zen 1980an, eta 31 iurte egingo ditu abenduan. Leioan jokatuko aurretik, Beasain eta Celta B taldeetan ibili da, besteak beste.

Axier Intxaurraga Kulturalen entrenatzailearen esanetan aurrelari "azkarra eta teknikoki ona da". Horrela, klubak aurrelaria indartu du eta postu horretan jokatuko lehiakortasun handiagoa egongo da.

Bestalde, joan zen asteburuan Kulturalak ustekabeen galdu egin zuen Amurrio azken hirugarrenaren kontra (0-1). Domekan Santurtziren kontra jokatuko du kanpoan. ■ J.D.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK



Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

Tabirako zulotik irten da azken sei partiduetatik lau irabazita

Emakumeen talde nagusiak garaipen biko aldea du orain jaitsiera postuetan daudenekiko



Asteburu honetan Cafés Aitonaren kontra jokatu dute, etxetik kanpora. Juanra de la Cruz

Liga hasiera kezkarri baten ondoren, Tabirakoren emakumeen talde nagusia denboraldiko unerik gozoenean dago orain. Lehen bederatziko partiduetatik bakarrik irabazita, zuloan egotetik azken seiretatik lautan garaitu eta jaitsiera postuetatik kanpo egotera igaro da. Ez hori bakarrik:

A. Molina: "Sasoiko partidurik onena jokatu genuen Ardoiren aurka"

Obenasari, jaitsierako lehen postuan dagoen taldeari, garaipen biko aldea ateratzen diote.

Nafarroan, Ardoiren kontra "denboraldiko jokorik onena" egin zutela deritzo Alberto Molina entrenatzaileak, batez ere, erasoan; pattalen zebiltzan arloan. Beraz, asteburu honetan

konfiantzaz beterik bisitatuko dute Cafés Aitona. Partidu horrek badu beste berezitasun bat ere: Nuria Maortuaren azkeneko neurtza izango da, taldea utziko duelako. Maortua taldeko saskiratzaile nagusia da, eta aurrerantzean, nahi eta nahi ez, bere hutsunea igarriko du taldeak. Hala ere, Alberto Molina itxaropentsu dago: "Beste jokalaririk garrantzitsu batzuk ere joan dira, eta aurrera egin dezakegu-

Nuria Maortuak azken partidua jokatu du asteburuan Tabirakogaz

la erakutsi dugu. Beraz, hementik aurrera ere ez dugu erraz etsiko inoren aurrean".

Besorik altxa ezinda dabilena gizonen talde nagusia da. Zornotzaren kontrako garaipen handiaren ondoren, galdu egin zuten Cafés Aitonaren kontra. Ondorioz, azkeneko darraite. Domekan arerio zuzena duten Torrelavega bisitatuko dute. ■ J.D.

Munduko 20 onenetako bat izatea helburu

Aurten Munduko Kopan emandako aurrerapausua berretsi gura dute Murgoiatik eta Ruizek etzi, Alemanian jokatu den lehen

Domekan, Alemaniako Sankt Wendel herrian, Munduko Txapelketan lehiatuko dira Hirumet taldeko Egoitz Murgoitio eta Dani Ruiz, Espainiako selekzioagaz. Orain bost urteko zirkuitu berari egin beharko dio aurre abadiñarrak: "Orduko gomuta onik ez daukat, ibilbidea izoztuta egon zelako, baina ematen du

Orain bost urte izoztuta aurkitu zuten zirkuitu berean lehiatuko dira

etzi hobeto egongo dela, beraz itxaropentsu goaz". 20 onenen barruan sartzea du helburu, eta indarrak, ibilbideak eta zortea lagun baditu 15 onenen artean sailkatzen ahaleginduko da.

Munduko Kopa amaituta Amaitu da Munduko Ziklo Kros Kopa, eta Hirumetek zortzi lasterketatik seitan parte hartu du. Denboraldi hasieran Kopako errendimenduan koska bat igotzea gura zuten, eta helburua

Murgoitio: "Urte gogorra izan da, baina emaitzak ikusita merezi izan du"

lortuzat ematen dute: "Denboraldi gogorra izan da, eskakizun handikoa, baina, emaitzak ikusita, merezi izan du". Batez ere, Igorreko 11. postua eta Pont Chateauko 18.a ditu gogoan.

Aurten denboraldia apur bat luzatuko dute, eta hurrengo asteburuan Belgikara joango dira Superprestigio eta GVA txapelketetako lasterketa banatan parte hartzeko. ■ J.D.



Joan zen asteburuan Ispasterren irabazi egin zuen Murgoiatik.

Agenda

FUTBOLA OHOREZKO MAILA

Berriz - San Pedro
Domekan, 11:30ean,
Berrizburun

GOREN MAILA

Elorrio - Ortuella

Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Berriatuko

Zapatuan, 17:00etan,
Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Galdakao B

Zapatuan, 16:15ean, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Berriz B

Zapatuan, 16:30ean,
Arripausetan

Elorrioko B - Extremeño

Zapatuan, 18:00etan,
Eleizalden

ARETO FUTBOLA

GOREN MAILA

Presion Break - Iturriondo

Zapatuan, 16:30ean,
Berrizburun

BIGARREN ERREGIONALA

Dantxari - Derioko Txorierrri

Zapatuan, 17:30ean,
Lanbide Heziketa Institutuan.

SASKIBALOA

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako - Unamuno

Zapatuan, 18:00etan,
Landako kiroldetxean

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko - Mungia

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

PILOTA

BIZKAIKO TRINKETA TXAPELKETA

- Muñozguren-Salutregi / Zubikarai-Arkoitza

- Etxebarria-Mendiola-garai / Astigarraga-Apralz

Urtarrilaren 28an, 18:00etan,
Tornosolo trinketean

- Ziarrusta-Etxebarria / Jimenez-Jimenez

- Gorosabel-Albizu / Garces-Maza

- Garcia-Juez / Barreiro-Lopez

Urtarrilaren 29an, 10:00etan,
Tornosolo trinketean

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Arrasate-Durango / Getxo

Urtarrilaren 29an, 16:00etan,
Arripausetan



ESKANTZA BEREZIA!

OTSAILAREN 10a ARTE IZENA EMANDA URTEKO KUOTA BEREZIA:

- 16,67 eurotik hasita, sauna, fitness, cycling birtuala eta aparkaleku pribatua barne.
- Orduetegi zabala: Astelehenetik igandera 07:00etatik 23:00etara.
- Informazio gehiago: 09:00-13:00 / 17:00-21:00.



jasokiolak.com
Intxaurren, 54
48200 Durango
Tel.: 94 621 60 21

kirolerrota@jasokiolak.com

AMALURRA >



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Amianto gaixotasun eragile da, bai lantegi barruan bai kanpoan

Amiantoaren kalteei buruz jardun dute Elorrion, 'Musikaren plaza' dokumentalagaz eta CCOOko Jesus Uzkudunegaz

Amiantoaren Biktimen Euskal Elkartearen arabera, ia 23 pertsona hil ziren amiantoak eragindako gaixotasunengatik

Erabilera 2002an debekatu bazuten ere, oraindik amiantoaren arriskuek bizirik dira

ASVIAME Amiantoaren Biktimen Euskal Elkarteak dituen datuen arabera, 2010ean 23 pertsona hil ziren amiantoak eragindako gaixotasunengatik. Horietako asko amiantoagaz beharrean ibilitakoak ziren. Beste batzuk fabriketatik kanpora arnastu zituzten amianto-zuntzak. Biriketan sartuta, pertsona guztiei ez die berdin eragiten, baina epe luzera gaixotasun kronikoak eragiten ditu.

Elorrixa ekologi taldeak antolatuta, amiantoaren gaineko *Musikaren plaza* dokumentala proiektatu dute martitzen honetan Elorrion, eta CCOOko Lan Osasuneko arduradun Jesus Uzkudun izan da bertan mineral horrek kaltetutako beharginen egoerari buruz berbetan.

Uzkudunek ohartarazi du fundizio asko egon den herrietan amiantoaren eragina nabarmena dela: "Ziur nago Elorrion epidemia egongo dena". Gaixotasunak urte batzuk pasatu eta gero agertzen direla azaldu du Uzkudunek, eta, horregatik, garrantzitsua dela jubilatuta daudenek ere osasun azterketak egitea.

Gaur egun, amiantoagaz lotura izan duten 4.000 pertsona daude erregistratuta EAEn. Pertsona horiek medikuen azterketa bereziak izaten dituzte. Uzkudunen ustez, jende gehiagok egon behar luke erregistratuta; 40.000tik 50.000ra.

Amiantoak eragindako gaixotasun larriena mesotelioma pleurala da. Pleuran sortzen den minbizi mota bat da, amiantoak bakarrik sortutakoa.

Debekatutako minerala

50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan gure inguruko hainbat industrietara heldu zen amianto, material berrizailera. Tenperatura altuak jasaten ditu mineral honek, eta isolatzaile ona da. Pisuz arina eta merkea, asko erabili izan da fundizioetan, automozioan, etxeen eraikuntzan eta barku, tren eta hegazkinen eraikuntzan.

Espainiako estatuan 2002an debekatu zuten amianto erabiltzea, baina Jesus Uzkudunek nabarmendu duenez, produktu hau minbiziagaz lotzen 1898an hasi ziren Erresuma Batuan. Hitzaldian azaldu

duenez, "herrialde garatu gehienetan debekatuta dago produktzioa, baina ez da gutxiti Pakistan, India, Txina eta Afrikan".

Musikaren plaza

Juanmi Gutierrez zine zuzendaria amiantoaren biktimen testigantzak jaso ditu *Musikaren plaza* dokumentalean. Gutierrez bere ama amianto-zuntzak arnasteagatik gaixotu eta hil zela jakin zuenean hasi zen gaia lantzen. Erreterian, Musikaren Plaza dagoen lekuan Paisa enpresa zegoen lehen. Amak ez zuen Paisan behar egiten; fabrikaren aurrean bizi zen, eta Paisako estraktoretik irtendako hautsa arnastuta gaixotu zen.

Egunero beragaz beharra eginda edo amianto kopuru txikia arnastuta, arriskua hor dagoela azaldu du Uzkudunek: "Medikuen zeregina susmo txikiengaz ohartaraztea da". Behargin ugari gaixotasun profesionalaren aitortza lortzeko borrokan dabil azken urteotan. Kasuak ez direla isolatuak ohartarazi dute: "Lantegi baten gaixo bat badago, seguru gehiago ere agertuko direla". ■ A.U.

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaituzte, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

SALDU
Abadiño. Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia eskegitokiarekin. Kanpoalderuntz ematen du. Garajea eta trasteleku. Oso polita. Deitu eta ikusi! Telefonoa: 615 007 216

Abadiño. Muntzaraten. 2 logela, 2 komun, sukaldia, egongela, igogailua, trasteleku eta garajea. 4. solairua, ia berria. Prezioa: 217.000 euro. Telefonoa: 688 686 587

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldia-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta terraza komunitarioak. Altzariz betea. Garaje eta igerilekua. Tel.: 655 704 684

Durango. Alde zaharra. 71 m². Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldia. Komun bat. Guztiz berrituta. Kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. 215.000 euro. Tel.: 607 715 353

Durango. Kalebarrian, 74 m². 3 logela, despentsa, egongela, sukaldia eta komun. Erreformatuta, oso polita. Ganbara. Telefonoa: 696 397 387

Durango. 94 m², herriko gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekoa. Prezioa: 343.000 euro. Tel.: 615 760 801.

Durango. Andra Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldia eta komun. Kanpoaldera ematen du; oso argitsua. Pisu altua, 30 m²-ko terrazarekin. Tel.: 696 255 083 (arratsaldeko 17:00etatik aurrera)

Durango. Sasikoa kalean. 71 m²-ko pisua. 3 logela, komun, egongela-jangela eta sukaldia. 2 balkoi. Kafekazioa. Ganbara eta garajea. Telefonoa: 679 382 369. Sorkunde

Durango. Pisu ederra Martxoaren 8ko kalean. 3 urte. Oso polita dago. 80 m², bi logela, bi komun, sukaldia berria eta saloi ederra. Pisu osoa ingurutzan 90m²-ko terraza. Kanpora ematen du eta orientazioa paregabea da. Batera 30m²-ko garajea saltzen da. Tel.: 637 416 438

Elorrio. Berritua, 124 m², gas naturaleko berogailua, sukaldia hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. 264.500 euro. 685 734 825

Elorrio. Berrio-otxo kalean berrituta dagoen jauregian, 70 m²-ko pisu polita, 2 logela, sukaldia eta egongela, komun, trasteleku, garaje

itxia. 303.000 euro; trasteleku eta garaje barik 283.000 euro. Nagore: 653 748 001

lurreta. Askondo kalean. 210.000 euro. 78 m², 3 logela, sukaldia, egongela eta komun. Igogailua. Garajea ere gura bada. Tel.: 94 681 19 48.

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. Tel.: 655 702 647

Atxondo. Atxondon bi logela alokagai, komunareko eta sukaldierako eskubidearekin. Telefonoa: 666 829 510

Durango. 3 logela. Oso eguzkitsua eta bista ederra. 4. pisua, igogailu eta berogailuaz. Tel.: 638 125 838

Elorrio. 50 m²-ko atikoa. Logela, komun eta sukaldia-egongela. Igogailua. Oso polita. Tel.: 606 043 835

Zaldibar. Logela bat ematen dut errentan. 655 739 792

Elorrio. Altzariz jantzitako pisu bila nabil alokatzeko. Tel.: 94 658 2191

lurreta. Lagun bi alokatzeko pisu bila dabilza lurretan edo Durangon. Etxea jantzita. Tel.: 675 708 827

Durango. Larunsen (gourette eski estazio ondoan) mobilhomea alokagai, eski denboraldian, astelehenetik ostiralera. Tel.: 678 748 924

Durango. Pisukide bila gailtza. Pisua egoera onean dago. Leku lasaian eta alde zaharretik bi minututara. Telefonoa: 679 620 447 edo 646 654 744

